



Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional
Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua



GIZARTE ETA
KULTURA
ZERBITZUAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua

MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI
ARRETA EGITEKO TEKNIKARIA



AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	4. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK	5. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua	
2. Gizarte-trebetasunak	
3. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak	
4. Arreta eta laguntza psikosoziala	
5. Komunikaziorako laguntza	
6. Etxeko laguntza	
7. Osasun-arreta	
8. Arreta higienikoa	
9. Telelaguntza	
10. Lehen laguntzak	
11. Ingeles teknikoa	
12. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	
13. Enpresa eta ekimen sortzailea	
14. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENEN ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK	104. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamendua	
5. IRAKASLEAK	106. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	107. or.
7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK	108. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko.	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko teknikariaren titulua honako elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko teknikaria.
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-3b.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1. Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri etxeko eta instituzioetako esparruan arreta egitea, horien bizi-kalitatea mantentzeko eta hobetzeko, eta, horretarako, laguntza-jarduerak egitea –ez osasunekoak–, baita jarduera piskosozialak eta etxeko kudeaketan laguntzeko jarduerak ere, prebentzio eta segurtasuneko neurriak eta arauak aplikatuta, eta, beharrezkoa denean, beste zerbitzu batzuetara bideratuta.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a) Pertsoneri etxean bertan gizarte- eta osasun-arreta egitea SSC089_2 (295/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC0249_2: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.
 - UC0250_2: Etxez etxeko arreta psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.
 - UC0251_2: Bizikidetasun-unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.
- b) Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri gizarte-instituzioetan gizarte- eta osasun-arreta egitea SSC320_2 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC1016_2: Diziplinarteko taldeak adierazitako pertsoneri eta horien inguruneari arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan.
 - UC1017_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan.
 - UC1018_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan.
 - UC1019_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan.
- c) Telelaguntzako deiak kudeatzea SSC443_2 (1096/2011 Errege Dekretua, abenduaren 14koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:
 - UC1423_2: Telelaguntzako zerbitzuaren sarrera-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzea.
 - UC1424_2: Telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea.
 - UC1425_2: Telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea.



2.3. Lanbide-ingurunea

Pertsoneri zuzendutako zerbitzu-sektorean egiten dute lan lanbide-profil hori duten pertsonak: laguntza-zerbitzuetan, zerbitzu psikosozialetan eta etxea kudeatzen laguntzeko zerbitzuetan.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzailea instituzioetan eta/edo etxean.
- Arreta psikiatrikoko zentroetako zaintzailea.
- Gerokultorea.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen gelazainburua eta azpigelazainburua instituzioetan.
- Adinekoen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen egoitzetako plantako laguntzaile arduraduna.
- Etxez etxeko laguntzako laguntzailea.
- Etxez etxeko arretako laguntzailea.
- Familiako langilea.
- Hezkuntza bereziko laguntzailea.
- Laguntzaile pertsonala.
- Telelaguntzako teleoperadorea.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Behatzeko eta erregistratzeko teknikak eta tresnak identifikatzea, eta teknika eta tresna horiek mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarrien arabera eta arreta-plan indibidualizatuaren arabera hautatzea, horien laguntza-beharrak eta behar psikosozialak zehazteko.
2. Esku hartzeko programaren jarraibideak interpretatzea, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarrietara eta beharretara egokitzea, laguntza-jarduerak eta jarduera psikosozialak antolatzeko.
3. Mendekotasun-egoeran dauden aukerak eta mugak identifikatzea eta laguntza mota hautatzea, autonomia- eta autodeterminazio-mailaren arabera, higiene pertsonaleko eta arropa-garbitasuneko jarduerak egiteko, betiere arreta-plan indibidualizatuan finkatutako jarraibideei jarraituta.
4. Arreta-plan indibidualizatuan ezarritako agindu dietetikoak interpretatzea, eta menuak eta elikagaien prestaketa egokitzea, elikadurarekin lotzen diren zereginak antolatzeko.
5. Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri elikagaiak ahoratzen laguntzeko beharrak identifikatzea, eta behar horiek elikagaiak ematen laguntzeko euskarriekin eta teknikekin lotzea.
6. Gastuak kontrolatzeko eta administratzeko prozedurak aztertzea, mendekotasun-egoeran diren pertsonen baliabideekin eta beharrekin lotuta, bizikidetasun-unitatearen aurrekontua kudeatzeko.
7. Etxea mantentzeko prozedurak identifikatzea, eta bizigarritasun, higiene eta txukuntasuneko baldintzak bermatuko dituzten baliabideak eta bitartekoak hautatzea –kalitate, segurtasun eta ingurumen-zaintzako irizpideekin–, betiere mantentze-lanak eta garbiketak egiteko.
8. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren laginak hartzeko eta medikazioa aztertu, eman eta kontrolatzeko prestakuntza-teknikak hautatzea, horien

- ezaugarriak eta egoera fisikoarekin lotzen diren esku-hartzeetarako ezarritako jarraibideak kontuan izanik.
9. Prozedura eta laguntza teknikoak hautatzea, arreta-plan indibidualizatuaren jarraibideei jarraituta eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen egoerara egokituta, lekualdaketak eta mobilizazioak egiteko eta joan-etorrietan laguntzeko.
 10. Arrisku-faktoreak identifikatzea eta prebentzio- eta segurtasun-neurriekin lotzea, eta, horrela, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta profesionalen beraien integritatea zaintzeko neurri egokiak aplikatzea.
 11. Lehen laguntzetako teknikak hautatzea, lan-jardueran larrialdietako eta osasun-arriskuko egoeretan jarduteko ezarritako protokoloei jarraituta.
 12. Estrategia psikologikoak, errehabilitatzaileak, lanerakoak eta komunikaziokoak aztertzea eta mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren berariazko zirkunstantzietara egokitzea, arreta-plan indibidualizatuaren jarraibideen arabera laguntza psikosozialeko jardunak egiteko.
 13. Komunikazioa laguntzeko sistemak identifikatzea eta pertsonaren ezaugarriekin lotzea, autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak garatzeko eta mantentzeko.
 14. Laguntza teknikoak eta komunikaziokoak hautatzea eta, horretarako, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ezaugarriak eta aukerak kontuan hartzea, autonomia pertsonaleko eta sozialeko trebetasunak eta bizimodu independenterako aukerak errazteko.
 15. Bizimodu independentearen printzipioak identifikatzea eta pertsonaren eta testuinguruaren ezaugarriekin lotzea, autonomia eta gizarte-mailako parte-hartzea sustatzeko.
 16. Bizimodu independenteko banako planaren elementu kritikoak aztertzea, eta pertsona bakoitzaren erabakiekin lotzea, betiere pertsonaren ondoan egoteko eta hari laguntzeko zereginak egiteko.
 17. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, familiei eta zaintzaile informalei aholkuak emateko garaian, solaskidearen ezaugarrien arabera hautatzea komunikazio-estiloak eta jarrerak.
 18. Jardun-protokoloak identifikatzea eta kontingentziekin lotzea, segurtasunez eta eraginkortasunez ebazteko.
 19. Kontrol eta jarraipeneko tresnak betetzea eta protokoloak aplikatzea, betiere laguntza-jardueren, jarduera psikosozialen eta kudeaketa-jardueren kontrolean eta jarraipenean laguntzeko.
 20. Tresna telematikoak eta informatika-aplikazioak identifikatzea, eta telelaguntzako zerbitzuaren deiak egiteko, jasotzeko eta kudeatzeko ezarritako protokoloak hautatzea.
 21. Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak eta komunikazioaren eta informazioaren teknologiak aztertzea eta erabiltzea, ikasteko eta jakintzak eguneratzeko, eta lanbidean eta pertsonalki hobetzeko aukerak ezagutzea, lanbideko eta laneko hainbat egoeratarako moldatzeko.
 22. Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.
 23. Lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta kontingentzien aurrean sormenezko konponbideak hartzea eta baloratzea, jardueraren gorabeherak arduraz konpontzeko.
 24. Komunikatzeko teknikak aplikatzea, transmitituko diren edukietara, haien xedera eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta, prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.



25. Lanbide-jarduerarekin lotutako ingurumen-arriskuak eta lanekoak aztertzea eta haien sorburuekin erlazionatzea, hartuko diren prebentzio-neurriak funtsatzeko eta dagozkien protokoloak aplikatzeko, norberaren, besteen, ingurunearen eta ingurumenaren gaineko kalteak saihestearren.
26. Irisgarritasun unibertsalari eta "denontzako diseinuari" erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
27. Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
28. Ekintzaitzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
29. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan hartuta, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua	105	2.a
0211. Gizarte-trebetasunak	99	1.a
0212. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak	132	1.a
0213. Arreta eta laguntza psikosoziala	252	2.a
0214. Komunikaziorako laguntza	99	1.a
0215. Etxeko laguntza	264	1.a
0216. Osasun-arreta	198	1.a
0217. Arreta higienikoa	105	2.a
0831. Telelaguntza	99	1.a
0020. Lehen laguntzak	66	1.a
E100. Ingeles teknikoa	33	1.a
0218. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	105	2.a
0219. Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2.a
0220. Lantokiko prestakuntza	380	2.a
Zikloa guztira	2.000	

3.3 Lanbide moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

1. lanbide modulua

MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONENTZAKO ARRETAREN ANTOLAMENDUA

a) Aurkezpena

Lanbide modulua:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua
Kodea:	0210
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1016_2: Diziplinarteko taldeak adierazitako pertsonen arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 10.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 22.a / 24.a / 25.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko programak interpretatzen ditu, eta antolamendu- eta funtzionamendu-eredua indarrean dagoen legezko esparruarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Europako, estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko esparruan, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitearen arloko araudiak alderatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko zerbitzuak eta ereduak deskribatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko zerbitzuek bete beharreko eskakizunak eta ezaugarri funtzionalak eta antolamendukoak identifikatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko zuzendutako hainbat motatako bizitegi-ekipamenduen antolamendu-egiturak eta lotura funtzionalak deskribatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko zerbitzuetako diziplinarteko taldeak koordinatzeko prozedurak, mailak eta funtzioak deskribatu ditu.

- f) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta integrala bermatzeko beharrezko giza baliabideak identifikatu ditu.
- g) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko hainbat instituzioen eta zerbitzuren diziplinarteko taldeetan, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikariak dituen funtzioak identifikatu ditu.
- h) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko lanetan, diziplinarteko talde baten garrantzia argudiatu du.

2. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin egin beharreko esku-hartzea antolatzen du, eta esku hartzeko programaren ezaugarrien eta jarraibideen arabera hautatzen ditu esku-hartzeak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta-jarduerak garatzeko jardun-estrategiak deskribatu ditu.
- b) Arreta-plan individualizatuaren ezarritako jarraibideak, irizpideak eta estrategiak behar bezala interpretatu ditu.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko egin beharreko esku-hartzeak zehaztu ditu, dagokion instituzioaren jardun-protokoloak abiapuntu izanik.
- d) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko estrategiak hautatu ditu, horien ezaugarrien eta arreta-plan individualizatuaren arabera.
- e) Lan-metodoak hautatu ditu, eta eskura dauden baliabideetara eta lan-planaren edo arreta-plan individualizatuaren zehaztapenetara egokitu du.
- f) Jarduerak eta zereginak denboralizatu ditu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrei eta lanaren zentzuzko antolamenduari erreparatuta.
- g) Bizimodu independenterako laguntza-zereginetan, printzipio metodologikoak eta teknikariaren jardun-jarraibideak deskribatu ditu.
- h) Bizimodu independentearen sustapen-printzipioak eta erabiltzaileen erabakiak errespetatzearen garrantzia argudiatu du.

3. Esku hartzeko beharrezko baliabideak antolatzen ditu, eta jarduera garatzen duen testuingurua mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Eguneroko bizimoduan pertsonen autonomia errazten edo galarazten duten ingurune faktoreak identifikatu ditu.
- b) Esku hartzeko testuinguru bakoitzaren berezko lan-tresnak eta altzariak ezagutu ditu.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen mugikortasuna eta joan-etorriak errazteko egokitu du ingurunea, baita horren erabilera eta utilitatea ere.
- d) Prebentzioaren eta segurtasunaren arloan indarrean dagoen legezko araudia identifikatu du, baliabideak antolatzera begira.
- e) Pertsonen autonomia errazteko, espazioen, ekipamenduen eta materialen antolamenduan jarraitu beharreko irizpideak aplikatu ditu.
- f) Pertsonen autonomia eta komunikazioa errazteko beharrezko laguntza teknikoak identifikatu ditu.
- g) Esku-hartzea optimizatzeko, testuinguruan dauden baliabideak deskribatu ditu.
- h) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, haien familiakoei edo zaintzaile informalei programatutako jarduerari buruz informatzearen garrantzia argudiatu du, betiere horien parte-hartzea erraztera begira.

4. Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitearen ondoriozko oinarrizko dokumentazioa kudeatzen du, esku-hartzearen helburuekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Erabiltzailearen oinarrizko dokumentazioak bildu behar dituen elementuak identifikatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen aldaketak ezagutzeko eta haien gogobetetze-maila jakiteko beharrezko informazioa biltzeko protokoloak aplikatu ditu.
- Egindako esku-hartzea idatziz dokumentatzearen garrantzia eta utilitatea justifikatu du.
- Hautemandako gorabeheren komunikazio-bideak identifikatu ditu.
- Dokumentazio osoa integratu, antolatu eta eguneratu du, banako espediente-eredua egiteko.
- Erabiltzaileen datuen babesa bermatuko duten jardun-irizpideak aplikatu ditu.
- Dokumentazioa eta espedienteak kudeatzeko informatika-tresneriak eta -aplikazioak erabili ditu.
- Informazioaren konfidentziasuna errespetatzearen garrantzia baloratu du.

c) Edukiak

1. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EGITEKO PROGRAMAK INTERPRETATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Diziplinarreko taldea ezaugarritzea, kideetako bakoitzaren eginkizunak zehaztuta. - Adineko pertsoneri eta minusbaliatuei zuzendutako instituzioek bete beharreko eskakizun eta ezaugarri funtzionalak eta antolamendukoak identifikatzea. - Esku-hartzeko taldeei zuzendutako zentroetako antolamendu-egitura eta erlazio funtzionalak ezaugarritzea. - Esku-hartzeen mota bakoitzerako beharrezko ekipamenduak identifikatzea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko teknikariaren zeregina identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Instituzio-ereduak: <ul style="list-style-type: none"> • Motak, ezaugarri nagusiak eta berariazkoak. • Lege-esparrua: nazio-mailakoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa. • Instituzioen antolamendua eta funtzionamendua. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko zerbitzuak eta ereduak: motak. - Bizimodu independentearen kulturarekin lotzen diren organismoak eta instituzioak. - Diziplinarreko taldea: <ul style="list-style-type: none"> • Rolak eta funtzionamendua. • Koordinatzeko bideak eta prozedurak. • Talde-lanarekin koordinatzeko eta komunikatzeko mailak. • Mendeko egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko ekipamenduak: definizioa eta sailkapena. • Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko teknikaria: funtzioak eta kokalekua diziplinarreko taldean.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-lanerako eta iradokizunak onartzeko prest egotea. - Diziplinar-teko taldearekin elkarlanean jardutea.
--------------	--

2. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EGITEKO JARDUNA ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintza-plan indibidualizatua lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Plana osatzen duten elementuak deskribatzea. • Erabiltzaileak, kasuak kasu, aurkeztutako beharrak eta ezaugarriak deskribatzea. • Plana lantzeko bildu beharreko informazioa ondorioztatzea. • Planifikatutako esku-hartzeak erabiltzailearen ezaugarriekin eta esku-hartzeekin lotzea. • Ezarritako irizpideak eta estrategiak zehaztea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko lan-metodoak ezaugarritzea. <ul style="list-style-type: none"> • Laguntzaile pertsonalaren funtzioak eta zereginak egitea. • Erabiltzailearen oinarriko beharren hasierako informazioa biltzea. • Arreta pertsonalizatua egitea: garbiketa, higieena, medikazioaren banaketa, ondoan egotea. • Bizimodu independenterako banako plana egitea. • Bizimodu independenterako eta eskola-esparrurako laguntza pertsonala ematea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zaintza-plan indibidualizatua: <ul style="list-style-type: none"> • Ezaugarriak eta plana osatzen duten elementuak. • Plana lantzeko zereginen parte hartzen duten profesionalak. Horietako bakoitzaren eginkizunak. • Teknikariaren ekarpenak erabiltzailearen balorazio funtzionalean. • Jarraipena. Esku-hartzea antolatu beharraren justifikazioa. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko lan-metodoak. - Laguntzaile pertsonalaren funtzioak eta zereginak: <ul style="list-style-type: none"> • Beharren hasierako informazioa biltzea. Teknikak eta prozedurak. • Arreta pertsonalizatua, garbiketa, higieena, medikazioen banaketa, ondoan egotea, elikadura, eta abar. • Bizimodu independentearen plan indibiduala. • Bizimodu independenterako laguntza pertsonala. • Eskola-esparruko laguntza pertsonala.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zorroztasunez egitea jarduerak. - Malgutasunez jardutea giza harremanetan. - Jendetasuna eta harremanak izateko gaitasuna izatea, laguntza jasotzen duenarekin eta laguntzaile teknikoarekin komunikazio ona izateko.

3. BALIABIDEAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behar bereziak dituzten pertsonen zuzendutako eraikinen ezaugarriak, baldintzak eta espazio-eskakizunak identifikatzea. - Ingurunea, mugikortasuna, joan-etorriak, erabilera eta utilitatea egokitze berariazko beharrak identifikatzea. - Egoera bakoitzerako banaketa espaziala diseinatzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Funtzionamendu egokia bermatzeko aplikatu beharreko laguntza teknikoak zehaztea. - Beharrezko lanabesak eta altzariak ezaugarritzea eta kokatzea. - Diseinatutako ingurumen-ingurunearen mantentze-egoera zuzenari buruz informatuko duten adierazleak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsoneri eta/edo minusbaliatuei zuzendutako eraikinen diseinu arkitektonikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Adineko pertsoneri eta/edo minusbaliatuei zuzendutako instituzioetako espazio-eskakizunei buruz indarrean dagoen legeria. • Segurtasuneko, irisgarritasuneko eta ingurumen-mugikortasuneko baldintza orokorrak, besteak beste. • Espazioa antolatzeke baldintzak eta irizpideak. • Espazioen banaketa, erabilera eta behar berezien arabera. Berariazko irizpideak. - Inguruneak pertsonen autonomian duen eragina: <ul style="list-style-type: none"> • Bizitegi-ekipamenduen arau erregulatzaileak. • Ingurumen-faktoreak eta eragin-maila, eguneroko bizimoduko jardueren garapenean. • Altzari egokituaren arloko beharrak: ezaugarriak, motak, hautatzeko irizpideak, erabilera- eta mantentze-baldintzak. • Prozedurak, materialak eta lan-tresnak, horiek mantentzeko. - Instituzioko eguneroko bizimoduan moldatzeko laguntza teknikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Sailkapena: erabilera komuneke eta indibidualizatuko laguntza teknikoak. Hautatzeko irizpideak. • Beharren hasierako informazioa biltzea. Teknikak eta prozedurak. • Aplikazio-prozedurak. Erabilera-beharrak. Mantentze-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Malgutasunez jardutea problematikara egokitzeke. - Eskura dituen baliabide mugatuez baliatzeko prest egotea.

4. OINARRIZKO DOKUMENTAZIOA KUDEATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen oinarrizko dokumentazioa bildu behar duten dokumentuak identifikatzea, betiere horien arreta egokia, haien bilakaeraren jarraipena eta diziplinarteko taldearekiko beharrezko koordinazioa bermatzeko. - Erabiltzailearen banako espedientea lantzea, oinarrizko dokumentazioa bilduko duena. - Informazioa erregistratzea. Teknikak eta tresnak. - Informazioa sailkatzea eta artxibatzea. Teknikak eta tresnak. - Informazioa helaraztea. - Kudeatu eta kontrolatzeko informatika-aplikazioak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laneko oinarrizko dokumentazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzailearen banako espedientea. Konposizioa eta jarraipena. • Jardun-protokoloak, jardueretan eta zereginetan eta krisi-egoeretan. • Gorabeheren orriak. • Mendeko pertsonen instituzioetan erabiltzen den osasun-dokumentazioa. • Informazioa hautatzeko eta biltzeko tresnak. • Informazioaren transmisioa –talde-lanari eta diziplinarteko taldeari–.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eraginkortasunez eta eragimenez jardutea informazio idatzia bilatzean, aurkitzean eta antolatzean. - Objektibotasunez aztertzea lortutako informazioa.
--------------	---

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Komeni da modulu honi 1. eduki multzoarekin hasiera ematea, *“Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko programak interpretatzea”*. Horrela, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko programen ikuspegi orokorra eskainiko da, instituzio-ereduak eta lan-taldearen zeregina nabarmenduta.

Ondoren, *“Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko jarduna antolatzea”* 2. multzoaren inguruko ikuspegi orokorra emango da. Laguntzailearen zereginak ezagutuko dira, zaintza indibidualizatuen plana landuko da, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko lan-metodoak finkatuko dira.

Gero, *“Baliabideak antolatzea”* 3. multzoko edukiak jorratuko dira. Adineko pertsonen zuzendutako eraikinen ezaugarri arkitektonikoak identifikatuko dira, eta garrantzia emango zaio inguruneak pertsonen autonomian duen eraginari, baita eguneroko bizimodua egoki garatzean duen eraginari ere.

Aurreko hiru puntuak aztertu eta ondo ezagutu ostean, *“Oinarrizko dokumentazioa kudeatzea”* multzoari ekingo zaio, eta, bertan, dokumentuak identifikatuko dira eta horiek sailkatzeko eta erregistratzeko modua ikasiko da.

2) Alderdi metodologikoak

Edukiak garatzeko garaian erabili beharreko metodologia askotarikoa eta oso desberdina izan daiteke, baina komeni da honako iradokizunetako batzuk aintzat hartzea.

Kontzeptuen aurkezpena abiapuntu izanik, komeni da hainbat suposiziotako jarduerak gauzatzera pasatzea.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko esku-hartzearekin lotzen diren edukiak praktikan jartzeko, zaintza-plan indibidualizatua lantzea eskatuko duten suposizio praktikoak izango dira abiapuntu.

Batez ere praktikoak diren jarduerak diseinatu beharko dira baliabideak antolatzeko. Jarduera horiek azaldu egin beharko dira, ikasleek zer garrantzizkoak diren uler dezaten.

Oinarrizko dokumentazioarekin lotzen diren edukiak lantzean, informatika-aplikazioak erabiltzea garrantzi handikoa denez gero, ezinbestekoa da informatika-gela bat edukitzea, ikasle bakoitzak –banaka ahal izanez gero– lanbide-jarduerak egin ahal izan ditzan eta norberaren akatsak ikaskuntza-prozesuan bertan zuzendu ahal izan ditzan.



3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta egiteko programak interpretatzea:
 - Diziplinarteko taldearen ezaugarriak, kideetako bakoitzaren funtzioak zehaztuta.
 - Esku-hartzeko taldeei zuzendutako zentroetako antolamendu-egituren eta erlazio funtzionalen ezaugarriak.
- ✓ Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta egiteko jarduna antolatzea.
- ✓ Zaintza-plan indibidualizatua lantzea:
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta egiteko lan-metodoen ezaugarriak.
- ✓ Baliabideak antolatzea:
 - Egoera bakoitzerako banaketa espaziala diseinatzea.
 - Beharrezko lanabesak eta altzariak ezaugarritzea eta kokatzea.
- ✓ Oinarrizko dokumentazioa kudeatzea:
 - Banako espedientea egitea.
 - Informazioa erregistratzea: teknikak eta tresnak.

2. lanbide-modulua GIZARTE TREBETASUNAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte-trebetasunak
Kodea:	0211
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	17.a / 18.a / 20.a / 22.a / 24.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ingurunearekin komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak ezaugarritzen ditu, eta adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
- Lanbidearen jardunean eta pertsonen arteko harremanetan gizarte- eta komunikazio-trebetasunek duten garrantzia baloratu du.
- Komunikazio-estiloak, eta horien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
- Komunikazioa eragozten duten oztopo eta interferentzia nagusiak identifikatu ditu.
- Argibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
- Egoerara egokitutako gizarte-trebetasunak erabili ditu.
- Pertsonak ez epaitzeko eta haien berezitasunak (emozioak, sentimenduak, nortasuna) errespetatzeko interesa erakutsi du.
- Aldaketarekiko eta ikaskuntzarekiko jarrera positiboa erakutsi du.

2. Talde-laneko teknikak aplikatzen ditu, eta une bakoitzean betetzen duen rolera egokitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Talde baten funtsezko elementuak, eta taldearen dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatu ditu.
- Taldearen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak aztertu eta hautatu ditu.
- Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.



- d) Talde bateko kideen tipologia eta rolak bereizi ditu.
- e) Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatu ditu.
- f) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- g) Talde-laneko prozedura gisa zereginen banaketa zehaztu du.
- h) Lan-giro lasaia eta lankidetzakoa sortzen lagundu du.

3. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak ebazteko teknikak aplikatzen ditu, ezarritako jardun-jarraibideak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Arazoen eta gatazken sorburuak aztertu ditu.
- b) Erabilitako baliabide teknikoak arazo estandarren motekin lotu ditu.
- c) Jarraitu den prozesua eta arazo baten ebazpenean lortutako emaitzak argi eta garbi eta ordenaturik aurkeztu ditu.
- d) Egin beharreko lanak planifikatu ditu, zailtasunak eta horiek gainditzeko modua aurreikusita.
- e) Arazoak ebazteko egon daitezkeen konponbideei dagokienez, besteen iritzia errespetatu ditu.
- f) Gatazkak ebazteko negoziazioaren elementuak eta kontzeptuak definitu ditu.
- g) Negoziatio-egoera batean, ager daitezkeen portaerak identifikatu ditu, baita horien eraginkortasuna ere.
- h) Datuak eta iritzia bereizi ditu.

4. Lanbide-eginkizunak garatzeko duen gizarte-kompetentziako maila baloratzen du, eta pertsonen arteko eta taldeko harremanetan duen eragina aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-kompetentzia ebaluatzeko adierazleak identifikatu ditu.
- b) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonala eta soziala erregistratu du.
- c) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- d) Bildutako datuak interpretatu ditu.
- e) Hobetu beharreko jardunak identifikatu ditu.
- f) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
- g) Prozesuaren amaierako balorazioa egin du.

c) Edukiak

1. KOMUNIKAZIO ETA GIZARTE HARREMANETAKO ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen gizarte-harremanetako funtsezko ezaugarriak deskribatzea. - Pertsonen arteko trebetasunak eta gizarte-trebetasunak sortzera, mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren jarduerak eta esku-hartzeak erabiltzea. - Erabiltzaileak hainbat testuingurutan izan beharreko gizarte-harremanak erraztuko dituzten banako eta taldeko esku-hartzeetako jarduerak eta estrategiak identifikatzea. <ul style="list-style-type: none"> • Familia-ingurunea. • Egoitza. • Lanerako edo aisialdirako zentroa. - Adinaren edo minusbaliotasunaren arabera gizarte-harremanetan izaten diren berriazko zailtasunak identifikatzea. - Gizarte-harremanak erraztuko dituzten teknologia berriak erabiltzea.

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen gizarte-harremanen ezaugarriak. Oinarrizko gizarte-trebetasunak. Inguruneko faktoreak eta gizarte-harremanean eta eguneroko bizimoduan duten eragina. - Adinaren edo minusbaliotasunaren arabera gizarte-harremanetan izaten diren berariazko zailtasunak. - Babes-mekanismoak. - Instituzioan edo etxean adineko pertsonaren edo minusbaliatuaren gizarte-harremanak errazteko teknikak, prozedurak eta estrategiak. <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-harremanetan, banakoetan eta taldekoetan, ondoan egon eta laguntzeko jarduerak. Ezaugarriak. Esku hartzeko estrategiak. • Baliabideak. • Gizarte-harremanak erraztuko dituzten teknologia berrien aplikazioen ezagutza eta maneia: Internet, posta elektronikoa, txatak, eta abar.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen berariazko zirkunstantzien aurrean egokitzea. - Tratu egokia izatea adineko pertsonetikiko eta/edo minusbaliatuekiko harremanetan. - Talde-lanean betetzen duen zeregina bere egitea eta elkarlanean jardutea.

2. TALDE LANeko TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzea. - Talde bateko kideen rolak, funtzioak eta zereginak ezaugarritzea. - Parte-hartzea sustatzeko beharrezko estrategiak identifikatzea, ekarpenak sustatuta. - Taldearen kohesioa eta integrazioa optimizatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-dinamika: rolak eta gidaritzea. - Taldeko komunikazioa: taldearen garapenean duen garrantzia. - Zereginen antolamendua eta banaketa. - Sormenaren estimulazioa. - Taldearen funtzionamenduaren behaketa. - Elkarlanerako estrategiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa erraztuko duten komunikazio- eta hedatze-dohainak izatea. - Talde koordinatuak antolatzeko sentsibilitatea eta sormena izatea. - Antolamendu- eta zintzotasun-dohainak izatea eta, hala, talde-lanaren martxa egokia eta errendimendua bermatzea.

3. GATAZKAK KUDEATZEKO ETA ARAZOAK KONPONTZEKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen arteko harremanetan gatazkak identifikatzea. - Gatazkak ebazteko estrategiak aplikatzea. - Gatazka baten suposizio praktiko batean, gatazka ebazteko erabakiak hartzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen arteko harremanetako gatazka. - Gatazkak ebazteko teknikak, prozedurak eta estrategiak. - Gatazka baten aurrean hartu beharreko erabakiak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dagokion errealitatea kritikoki behatzea. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetua eta tolerantzia baloratzea.
--------------	---

4. GIZARTE KONPETENTZIA BERA BALORATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-konpetentziaren datuak erregistratzea eta interpretatzea. - Hasierako prestakuntzako eta lan-bizialdi osoko prestakuntzako prozesuak aztertzea. - Autoebaluazioa egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-konpetentzia: adierazleak. - Autoebaluazioa gizarte-laneko profesionalarengan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpetentzia soziala hobetzeko estrategia gisa autoebaluazioa baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau egitean, komeni da 1. multzoko edukiak aztertzea, “*Komunikazio- eta gizarte-harremanetako estrategiak eta teknikak ezaugarritzea*”, eta, horrela, talde-lanari garrantzia ematea, taldeko dinamika eta komunikazioa ezagutzea eta elkarlan zuzen baterako estrategiak ezagutzea.

Ondoren, “*Talde-laneko teknikak aplikatzea*” multzoarekin jarraituko da, eta gizarte-harremanak erraztuko dituzten teknologia berrien erabilera baloratuko da.

Azkenik, hirugarren eta laugarren multzoak aztertuko dira, “*Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko teknikak aplikatzea*” eta “*Gizarte-konpetentzia bera baloratzea*”. Profesionalaren autoebaluazioa baloratuko da, baita arazoak kudeatzeko eta konpontzeko tekniken aplikazioa ere.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakaslearen eginkizun nagusia da jarduerak behar bezala hautatzea, errazenetik zailenera sekuentziazatuta; izatez, jarduerak garatzen eta arian-arian gizarte-trebetasunak eskuratzen gidatuko dute ikaslea. Adierazi bezala, komeni da ikaslearen konfiantza eta estimulua bultzatuko duten jarduerekin hastea.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banakakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio- eta gizarte-harremanetako estrategiak eta teknikak ezaugarritzea:
 - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen gizarte-harremanak ezaugarritzea.
 - Banako eta taldeko esku-hartzearen estrategiak eta jardunak identifikatzea.
 - Teknologia berriak erabiltzea.
- ✓ Talde-laneko teknikak aplikatzea:
 - Parte-hartzea sustatzeko beharrezko estrategiak identifikatzea.
 - Taldeen ezaugarriak eta funtzionamendua aztertzea.
- ✓ Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko teknikak aplikatzea:
 - Gatazkak ebazteko estrategiak aplikatzea.
- ✓ Gizarte-konpetentzia bera baloratzea:
 - Autoebaluazioa egitea.

3. lanbide-modulua

MENDEKOTASUN-EGOERAN DAUDEN PERTSONEN EZAUGARRIAK ETA PREMIAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak
Kodea:	0212
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 4.a / 8.a / 9.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 20.a / 26.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Autonomia pertsonalaren kontzeptua ezaugarritzen du eta haren prebentzioan eta sustapenean zein haren nariaduran esku hartzen duten faktoreak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Autonomia pertsonala eta bizimodu independentea sustatzearekin lotzen diren oinarritzko prozesuak deskribatu ditu.
- Autonomia pertsonaleko trebetasunak ezaugarritu ditu.
- Autonomia pertsonala eta bizimodu independentea mantentzea errazten edo galarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- Autonomia pertsonala galtzearekin lotzen diren emoziozko eta jarrerazko asaldura nagusiak deskribatu ditu.
- Autonomia galtzearen adierazle nagusiak identifikatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren hautespen-ahalmena errespetatu beharra justifikatu du.
- Mendekotasun-egoerak atzeratzeko prebentzioaren garrantzia argudiatu du.
- Autonomia pertsonalean eta ongizate fisikoan eta psikosozialean subjektuaren inguruneak eta familiak duen garrantzia baloratu du.

2. Zahartze-prozesuarekin lotzen diren mendekotasun-mailak eta beharrezko laguntzak sailkatzen ditu, zahartzeak eragiten dituen aldaketak eta narriadurak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Zahartzearen ondoriozko aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak, batetik, eta pertsonaren eguneroko bizimoduan sortzen dituzten zailtasunak, bestetik, lotu ditu.
- b) Adineko pertsonarengan ohikoenak diren patologia identifikatu ditu.
- c) Adineko pertsonen ezaugarri eta behar nagusiak deskribatu ditu.
- d) Adineko pertsonen berezko narriadura pertsonalaren eta sozialaren agerpen nagusiak identifikatu ditu.
- e) Narriadura fisikoaren, psikologikoaren eta sozialaren mailak mendekotasun-mailekin eta beharrezko laguntza motarekin lotu ditu.
- f) Adineko pertsonen jokabide eta portaera bereizgarriak deskribatu ditu, betiere mendekotasunari arreta egiteko zerbitzura egokitzeko aldi eta erreferentziazko profesionalera egokitzeko aldi.
- g) Adineko pertsonaren familiako zaintzaileen eta zaintzaile ez-profesionalen orientazio- eta laguntza-beharrak identifikatu ditu.
- h) Adineko pertsonen erabakiak eta interesak errespetatzearen garrantzia baloratu du.

3. Minusbalotasuna duten pertsonen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta mendekotasun-mailarekin eta beharrezko laguntzarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) "Minusbalotasun" kontzeptuaren bilakaera aldaketa sozialekin, kulturekin, ekonomikoekin eta zientifiko-teknologikoekin lotu du.
- b) Minusbalotasun motak eta pertsonen eguneroko bizimoduan eragiten dituzten zailtasunak lotu ditu.
- c) Minusbalotasuna duten pertsonen behar psikologiko eta sozial nagusiak deskribatu ditu.
- d) Hainbat tipologiatako minusbalotasunak eta mailak mendekotasun-mailarekin eta beharrezko laguntza motarekin lotu ditu.
- e) Bizimodu independentearen printzipioak identifikatu ditu.
- f) Minusbalotasuna duen pertsonaren zaintzaile ez-profesionalen orientazio- eta laguntza-beharrak deskribatu ditu.
- g) Minusbalotasun fisikoa edo sentsoriala duten pertsonen autonomia errazteko oztopo fisikoak ezabatzearen garrantzia argudiatu du.
- h) Minusbalotasuna duten pertsonen erabakiak eta interesak errespetatzearen garrantzia argudiatu du.

4. Mendekotasuna sortzen duten gaixotasunak deskribatzen ditu, eta gaixotasun horiek jasaten dituzten pertsonen gainerako ondorioak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gaixotasun akutuak, kronikoak eta terminalak ezaugarritu ditu, gaixorik dagoen pertsonaren autonomia pertsonalean duen eragina kontuan izanik.
- b) Mendekotasuna eragiten duten gaixotasunak dituzten gaixoen ezaugarri eta behar psikologiko eta sozial nagusiak identifikatu ditu.
- c) Ohikoenak diren buruko gaixotasunen ezaugarri nagusiak definitu ditu.
- d) Buruko gaixotasunek autonomia pertsonalean eta sozialean duten eragina deskribatu du.

- e) Gaixorik dauden pertsonen laguntza asistentzial eta psikosozialeko beharrak identifikatu ditu, duten gaixotasunaren tipologiaren arabera.
- f) Gaixorik dauden pertsonen behar psikologikoei eta sozialei arreta egiteko jarraibide nagusiak deskribatu ditu.
- g) Gaixorik dagoen pertsonaren zaintzaile ez-profesionalen orientazio- eta laguntza-beharrak deskribatu ditu.
- h) Gaixorik dagoen pertsonaren jokabidean gaixotasunak duen eraginari buruz sentsibilizatu du.

c) Edukiak

1. AUTONOMIA PERTSONALAREN KONTZEPTUA EZAUGARRITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autonomia pertsonaleko trebetasunak ezaugarritzea. - Autonomia pertsonala eta bizimodu independentea mantentzea errazten edo galarazten duten faktoreak identifikatzea. - Autonomia pertsonala galtzearekin lotzen diren emoziozko eta jarrerazko asaldura nagusiak deskribatzea. - Esku-hartzearen xede diren kolektiboen berezko aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak aztertzea, horiek pertsonaren eguneroko moldaeran dakartzaten zailtasunekin: <ul style="list-style-type: none"> • Autonomia pertsonaleko ohituretan. • Ingurunearekiko erlazioan eta komunikazioan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Psikologiako oinarrizko kontzeptuak: bizi-zikloa, prozesu kognitiboak, emozionalak eta jokabidekoak. - Autonomia eta mendekotasuna. - Autonomia pertsonaleko trebetasunak. - Autonomia pertsonalaren sustapena. - Autonomia galtzearekin lotzen diren asaldura emozionalak eta jokabidekoak. - Autonomia pertsonala mendekotasunaren aurrean jarduteko estrategia gisa sustatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen hautespen-ahalmena errespetatzearen garrantziaz sentsibilizatzea. - Tratu egokia izatea adineko pertsonetako eta/edo minusbaliatuekiko harremanetan.

2. ZAHARTZE PROZESUAK SAILKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonetako arreta egiteko eta laguntza integrala emateko behar bereziak identifikatzea. - Adineko pertsonen patologiarik ohikoenak ezaugarritzea. - Pertsonen, bizi-bilakaeraren barruan, alderdi biologikoetan, psikologikoetan eta harremanetakoetan jasaten dituzten aldaketen prozesua deskribatzea. - Ohikoenak diren minusbaliotasun motak eta etiologiak sailkatzea, eta horietako bakoitzak minusbaliatuaren jardun autonomoan dituen inplikazioak identifikatzea. - Adineko pertsonen eta/edo minusbaliatuen sexualitatearen ezaugarriak eta bilakaera azaltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zahartze-prozesua. Kontzeptua eta teoriak. - Zahartzeak adineko pertsonaren bizi-kalitatean eta autonomian duen

	<p>eragina.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonengan ohikoenak diren patologiaak. - Ezaugarriak eta aldaketa biologikoak, psikosozialak eta gaitasun kognitiboetakoak. - Sexualitatea adineko pertsonengan. Bizi-kalitatean duen eragina. - Adineko pertsonen gizarte-ingurunearen bilakaera. Zahartzearen gizarte-ikuspegia. Faktoreak. - Adineko pertsona arreta-zerbitzura eta arreta egiten dioten profesioletara egokitzeko prozesua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zahartzeak adineko pertsonen eguneroko bizimoduan eta haren ingurunean dituen ondorioekin sentsibilizatzea. - Adineko pertsonen autodeterminazio-gaitasuna errespetatzea.

3. MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONEN EZAUGARRIAK EZAGUTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Minusbaliotasuna duten pertsonen ezaugarriak eta beharrak identifikatzea. - Minusbaliotasuna duten pertsonengan autonomia sustatzea. - Minusbaliotasuna duten pertsonen autonomian oztopo fisikoak ezaugarritzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoerarik ohikoenen kontzeptua, sailkapena eta etiologiak. - Bizi-kalitatea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen inguruneke pertsonen zuzendutako orientazioa eta laguntza. - Generoaren ikuspegia minusbaliotasunean. - Minusbaliotasuna, autonomia eta mendekotasun-mailak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Minusbaliotasunaren eguneroko bizimoduan eta haien ingurunean minusbaliotasunak duen eraginarekin sentsibilizatzea. - Adineko pertsonen autodeterminazioa errespetatzea.

4. MENDEKOTASUNA ERAGITEN DUTEN GAIXOTASUNAK DESKRIBATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasun kronikoekin edo endekapenezko gaixotasunekin lotzen diren beharrak eta ezaugarriak identifikatzea. - Gaixotasun kroniko eta endekapenezko gaixotasun nagusiak ezaugarritzea. - Gaixoaren zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza motak sailkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Buruko gaixotasuna. Buruko gaixotasuna duten pertsonen deskribapena, jokabidea eta portaera. - Gaixotasun kronikoak edo endekapenezkoak. - Gaixotasun kronikoak edo endekapenezkoak dituzten pertsonen zaintzaileentzako laguntza eta orientazio motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasunak gaixoarengan eta haren ingurunean dituen ondorioekin sentsibilizatzea. - Erabiltzaileari egiten zaion arretaren kalitatearekiko interesa izatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Aztertu beharreko lehen edukiak 1. multzoan zerrendatutakoak izan daitezke (*“Autonomia pertsonalaren kontzeptua ezaugarritzea”*) autonomia pertsonalarekin lotzen diren alderdirik orokorrenak eta oinarritzkoenak baitira, hala nola autonomia sustatzeko trebetasunak eta psikologiako oinarritzko printzipioak.

Gero, 2. eta 3. multzoko edukiak gara daitezke (*“Zahartze-prozesuak sailkatzea”* eta *“Minusbaliotasuna duten pertsonen ezaugarriak ezagutzea”*). Etiologiak eta ohikoenak diren minusbaliotasun motak aztertuko dira, baita pertsonen bizi-bilakaeran jasaten duten aldaketa ere.

Azkenik, 4. multzoko edukiak garatuko dira (*“Mendekotasuna eragiten duten gaixotasunak deskribatzea”*), gaixotasun kronikoekin eta endekapenezkoekin lotzen diren beharrak eta ezaugarriak identifikatuta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau batik bat teorikoa da, eta hortaz, behar-beharrezkoak dira irakasleen azalpen-jarduerak. Nolanahi ere, oso garrantzitsua da azaldutako kontzeptu teorikoak bistartzeko gai izatea ikasleak, eta gizarte-zerbitzuetan izan dezakeen aplikagarritasuna ulertzeko gai izatea.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banakakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Autonomia pertsonalaren kontzeptua ezaugarritzea:
 - Esku-hartzearen xede diren kolektiboen berezko aldaketa biologikoak, psikologikoak eta sozialak aztertzea.
- ✓ Zahartze prozesuak sailkatzea:
 - Adineko pertsonen patologiarik ohikoenak ezaugarritzea.
 - Etiologiak eta ohikoenak diren minusbaliotasun motak sailkatzea.
- ✓ Minusbaliotasuna duten pertsonen ezaugarriak ezagutzea:
 - Minusbaliotasuna duten pertsonen ezaugarriak identifikatzea.
 - Oztopo fisikoak ezaugarritzea, pertsonen autonomian.
- ✓ Mendekotasuna eragiten duten gaixotasunak deskribatzea:
 - Gaixotasun kronikoekin edo endekapenezko gaixotasunekin lotzen diren beharrak eta ezaugarriak identifikatzea.

4. lanbide-modulua

ARRETA ETA LAGUNTZA PSIKOSOZIALA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Arreta eta laguntza psikosoziala
Kodea:	0213
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	252 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1019_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0250_2: Etxez etxeko arreta psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsonen zuzenduta.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 10.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 18.a / 19.a / 22.a / 23.a / 24.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lana egingo duen ingurunea antolatzen du, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen behar psikosozialak instituzioaren edo etxearen ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen egoera psikosozialean eragina duten instituzioaren edo etxearen ezaugarri funtzionalak eta antolamendukoak identifikatu ditu.
- Gizarte-harremanetan eragina duten ingurumen-faktoreak eta elementu espazialak eta materialak deskribatu ditu.
- Jasotako orientazioak, beharrak eta pertsonen ezaugarriak, ohiturak eta gustuak errespetatu ditu, baita espazioak eta altzariak mantentzean segurtasun- eta higiene-arauak ere.
- Erabiltzaileak eta zaintzaile informalak espazioen eta materialen arloan orientatu ditu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen jardun autonomia, komunikazioa eta bizikidetasuna errazteko.

- e) Espazioak dekoratu ditu, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren beharretara egokituta, baita instituzioaren jarduera-programara, egutegira eta kultura-ingurunera ere.
- f) Lantegi-ikasgela edo etxe bateko materialak eta tresnak antolatzeko eta, horrela, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren autonomia errazteko seinaleztapen- eta sinbolizazio-elementuak egin ditu.
- g) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko espazioa antolatzearen alde onak justifikatu ditu.
- h) Instituzioaren eta etxearen barruan esku-hartzeko espazioaren antolamenduan ekimena erakutsi du.

2. Laguntza psikosozialeko estrategiak eta gizarte-harremanetako trebetasunak hautatzen ditu, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrak eta ezaugarriak aztertzen ditu, baita ezarritako lan-plangintza ere.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen gizarte-harremanen funtsezko ezaugarriak eta beharrak deskribatu ditu.
- b) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako laguntza psikosoziala antolatzeko eta harreman berriak sortzeko estrategiak eta irizpideak aztertu ditu.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen gizarte-trebetasunak laguntzeko eta garatzeko baliabideak, bitartekoak, teknikak eta estrategiak identifikatu ditu.
- d) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen harreman-ahalmenak mantentzea erraztuko duten adierazpen eta komunikazioko baliabideak eta bitartekoak hautatu ditu.
- e) Eguneroko egoeretara egokitutako gizarte-trebetasunak mantentzen eta garatzen lagunduko duten teknikak eta estrategiak hautatu ditu.
- f) Ingurunearekiko gizarte-harremanak mantentzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatu ditu.
- g) Jokabidea aldatzeko eta gatazkak konpontzeko teknikak aplikatu ditu, betiere behar bereziak dituzten pertsonen gizarte-arreta egiteko.
- h) Erabiltzaile bakoitzaren gizarte-harremanetako trebetasunak erabiltzeko eta komunikazio-jarraitutako beharra justifikatu du.

3. Psikologiaren, errehabilitazioaren eta lanerako prestakuntzaren arloko mantentze eta entrenamenduko teknikak eta ariketak aplikatzen ditu mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin, betiere ezarritako jardun-planari jarraituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Adinekoen, minusbaliatuen eta gaixoen motibazioek eta ikaskuntzek dituzten berriak ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Gaitasun kognitiboak mantentzeko eta hobetzeko ariketetarako eta jardueretarako jardun-estrategia egokiak identifikatu ditu.
- c) Errehabilitazioko eta mantentze kognitiboko jarduerak aplikatu ditu, erabiltzaileen berriak beharretara eta programaziora egokituta.
- d) Gaitasun kognitiboak mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren ariketak eta jarduerak egiteko materialak ekimenez eta sormenez erabili ditu.
- e) Autonomia pertsonala mantentzeko eta hobetzeko jarduerak egin ditu.
- f) Mantentze eta entrenamendu kognitiboko ariketak egitean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin elkarlanean jardun du.
- g) Psikologiaren, errehabilitazioaren eta lanerako prestakuntzaren arloko mantentze eta entrenamenduko jarduerak eta ariketak egitean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen mugak errespetatu ditu, fisikoak ez ezik, kulturalak ere bai.

- h) Psikologiaren, errehabilitazioaren eta lanerako prestakuntzaren arloko mantentze eta entrenamenduko jarduerak eta ariketak planifikatzean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak motibatzeke teknikak aplikatu ditu.

4. Gizarte-harremanetako jardueretan eta eguneroko bizimodua kudeatzeko jardueretan, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ondoan egoteko teknikak ezaugarritzen ditu, baliabide komunitarioak pertsona horren beharrekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ondoan egoteko beharrak identifikatzeko diziplinarteko taldearen informazioa lortu du.
- b) Instituzio baten barruan zein etxean, pertsona horren ondoan egotean, egin beharreko jarduerak identifikatu ditu, betiere inplikaturako pertsonen eskubideak errespetatuta.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala erraztuko duten irizpideak eta estrategiak hautatu ditu, pertsona horiei laguntzeko egoeretan.
- d) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen baliabide komunitarioak pertsona horren ondoan egoteko zereginetara egokitu ditu, baliabideez gozatzeko eta baliatzeko, betiere ezaugarri eta interes pertsonalen arabera.
- e) Pertsona horien ondoan egotearen ondoriozko jarduerak erregistratu ditu, baita jarduera horietan izandako gorabeherak ere.
- f) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen interesak errespetatu ditu aisialdiko jarduerak egitean.
- g) Pertsona horien ondoan egoteko zereginetan, ezarritako jarraibideak, orientazioak eta protokoloak errespetatzea baloratu du.

5. Instituzioaren talde-animazioko estrategiak eta teknikak deskribatu ditu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen aisialdiko jarduerak dinamizatzeko animazio-teknikak definitu ditu.
- b) Instituzio jakin batean egiten diren jardueretan parte-hartzea sustatuko duten animazio- eta motibazio-estrategiak deskribatu ditu.
- c) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako aisialdiko berariazko baliabide egokiak hautatu ditu.
- d) Erabiltzaileentzako material ludiko egokiak aztertu ditu, eta horien ezaugarriak eta utilitateak zehaztu ditu.
- e) Instituzioaren barruko eta kanpoko aisialdiko jarduerak deskribatu ditu, erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta.
- f) Instituzioaren barruan, aisialdiko eta kulturako baliabideen mantentzea eta kontrola antolatu du.
- g) Instituzioan ekitaldi bereziak eta animazio-jarduerak diseinatzeko proposamen sortzaileak egin ditu.
- h) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren autodeterminazio-printzipioak eta erabiltzaileen interesen errespetua justifikatu ditu, betiere haren aisialdia betetzeko garaian eta aisialdiko animazio-jardueretan parte hartzeko garaian.

6. Zaintzaile informalentzako informazioa prestatzen du, horien eskaerak eta beharrak baliabide komunitarioekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako baliabide ekonomikoak definitu ditu.
- Gizarte-mailako, lanerako prestakuntzako, aisialdiko eta prestazio ekonomikoetako laguntza-baliabideen fitxategia landu du.
- Zaintzaile informalek ohikoenak diren prestazioak eskatzeko dituzten bideak eta egin beharreko kudeaketak identifikatu ditu.
- Laguntzak, prestazioak eta zerbitzuak eskatzeko formatuak eta ereduak identifikatu ditu.
- Baliabide komunitarioak aurkitzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu.
- Erabiltzaileez arduratzen diren familiekin eta pertsonekin harremanetan jartzea justifikatu du.
- Familiekin eta zaintzaile informalekin komunikatzeko prozesuan egoki mintzatu da.

7. Esku-hartzeen eta jardueren jarraipena baloratu du, eta hainbat iturritatik lortutako informazioa ebaluazio-tresnekin eta -protokoloekin lotu du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren arreta psikosozialean inplikaturako informazio-iturriak identifikatu ditu.
- Informazioa biltzeko tresnak definitu ditu, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren balorazioan eta harekiko esku-hartzearen ebaluazio-prozesuan erabiltzeko.
- Etxean bertan zein instituzioan, esku-hartze bakoitzaren eta ebaluazio-prozesuaren berriazko protokoloak bete ditu.
- Jardueren garapenean egindako behaketak erregistratzeko eta transmititzeko tresnak aplikatu ditu.
- Lanbide-zeregina garatzean ebaluazio-prozesuaren garrantzia baloratu du.
- Diziplinarteko taldeari informazioa helaraztearen garrantzia justifikatu du.
- Egindako lanaren kalitatea hobetzeko garaian, informazioa lortzearen, erregistratzeko eta transmititzeko garrantzia argudiatu du.

c) Edukiak

1. ESKU HARTZEAREN INGURUNEA ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-harremanetan eragina duten ingurumen-faktoreak eta faktore espazialak eta materialak deskribatzea. - Altzariak bete beharreko eskakizunak eta ezaugarriak identifikatzea, eta, hala, behar bereziak dituzten erabiltzaileen orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala erraztea. - Jardungo den lekuko materialak eta/edo tresnak antolatzeko beharrezko seinaleztapen- eta sinbolizazio-elementuak diseinatzea eta egitea. - Teknika plastikoak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruneko faktoreak eta gizarte-harremanetan eta eguneroko bizimoduan duten eragina. - Giroa komunikazioa eta gizarte-harremanak errazteko faktore gisa: <ul style="list-style-type: none"> • Elementu espazialak eta materiala. Banaketa eta aurkezpena. - Espazioen dekorazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Informazio- eta komunikazio-elementuak. • Seinaleztapen- eta sinbolizazio-elementuak. • Elementu bereizgarriak eta identifikaziokoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sormenez eta ekimenez jardutea espazioak girotzean.

	- Lan-taldearekin lankidetzan aritzea.
--	--

2. LAGUNTZA PSIKOSOZIALEKO ESTRATEGIAK ETA GIZARTE TREBETASUNAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonengan gizarte-harremanak erraztuko dituzten estrategiak aztertzea. - Gizarte-trebetasunak garatzeko teknikak eta estrategiak aplikatzea. - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen gizarte-harremanen funtsezko ezaugarriak deskribatzea. - Erabiltzaileek hainbat testuingurutan izan beharreko gizarte-harremanak erraztuko dituzten banako eta taldeko esku-hartzeetako jarduerak eta estrategiak identifikatzea. - Etxeko edo instituzioko arretan gatazkak konpontzea. - Harreman-ahalmenak mantentzeko errazteko adierazpen-baliabideak zehaztea. - Ingurunearekiko gizarte-harremanak hobetzeko eta mantentzeko dauden informatika-baliabideak aplikatzea: Internet, posta elektronikoa, txatak, eta abar.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen gizarte-harremanen ezaugarriak. - Oinarrizko gizarte-trebetasunak. - Adinaren edo minusbaliotasunaren arabera gizarte-harremanetan izaten diren berriazko zailtasunak. - Instituzioan edo etxean adineko pertsonaren edo minusbaliatuaren gizarte-harremanak errazteko teknikak, prozedurak eta estrategiak. - Gizarte-harremanetan, banakoetan eta taldekoetan, laguntzeko jarduerak. Ezaugarriak. Esku hartzeko estrategiak. - Baliabideak. - Gizarte-harremanak erraztuko dituzten teknologia berriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tratu egokia izatea adineko pertsonekin eta/edo minusbaliatuekin. - Adineko pertsonen berriazko zirkunstantzien aurrean egokitzea.

3. PSIKOLOGIAREN, ERREHABILITAZIOAREN ETA LANERAKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO MANTENTZE ETA ENTRENAMENDUKO TEKNIKAK ETA ARIKETAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adinekoen, minusbaliatuen eta/edo gaixoen motibazioak eta ikaskuntzak irudikatzen dituzten berriazko ezaugarriak deskribatzea. - Gaitasun kognitiboak mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren ariketak eta jarduerak egiteko material egokiak erabiltzea: oroimena; arrazoibidea; arreta; orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala; lengoia; eta abar. - Autonomia pertsonaleko ohiturak sortzera, mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren esku hartzeko prozedurak eta teknikak sailkatzea. - Gaitasun kognitiboak mantentzera eta hobetzera zuzentzen diren esku hartzeko prozedurak eta teknikak sailkatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen, minusbaliatuen edo gaixoen motibazioa eta ikaskuntza. - Funtzio kognitiboak mantentzeko eta entrenatzeko jarduerak. - Adineko pertsonen edo minusbaliatuen trebetasun kognitiboaren berriazko ezaugarriak: arrazoibidea; memoria; arreta; orientazio espaziala, denborazkoa eta pertsonala; lengoia; eta abar. - Autonomia-mailako ondorioak eta adierazpenak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Egiturazko materialen ezagutza, erabilera eta maneia. - Esku hartzeko eta laguntzeko estrategiak eta jarraibideak. - Autonomia pertsonaleko ohiturak mantentzeko eta entrenatzeko jarduerak. - Autonomia-ohiturak sortzeko eta mantentzeko jardunak, teknikak eta prozedurak. - Eguneroko ohiturekin lotzen diren gatazkarik eta asaldurarik ohikoenak: elikadura, higiena, atsedena, gizarte-harremanak, eta abar. - Gatazkek ebazteko teknikak, prozedurak eta estrategiak. - Autonomiaren, gizarte-harremanen, lanerako prestakuntzaren, aisialdiaren eta errehabilitazioaren arloko jardueretara egokitutako jokabidea aldatzeko prozedurak eta estrategiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen egoera anomaloen aurrean erantzuteko eta behatzeko gaitasuna izatea. - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen berriazko zirkunstantzien aurrean egokitzea.

4. MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN ONDOAN EGOTEKO TEKNIKAK EZAUGARRITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen autonomia-maila eta laguntza-beharrak egokitzea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ondoan egoteko beharrak identifikatzea. - Dokumentazio pertsonalaren eta bizikidetasun-unitatearen erregistro-prozesuak gauzatzea (historial mediko-sanitarioa, legezko dokumentazioa, bankuetako dokumentazioa, zergak, eta abar). - Kudeaketa pertsonalean eta harremanen kudeaketan ezarritako protokoloak eta orientabideak jarraitzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aisialdian ondoan egotea. - Adineko pertsonekin edo minusbaliatuekin esku-hartzean ohikoenak diren kudeaketak eta laguntza. - Pertsonaren ondoan egoteko funtzioetan teknikariak betetzen dituen eginkizunak eta zereginak, instituzioan edo bizikidetasun-unitatean. - Familiako laguntza-jardunen eskakizunak eta ezaugarriak. Esku hartzeko arloak. Jardun-estrategiak. - Dokumentazioaren erregistroa: historial mediko-sanitarioa, legezko dokumentazioa, bankuetakoa, zergak, eta abar.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tratu egokia izatea adineko pertsonekin eta/edo minusbaliatuekin. - Adineko pertsonen berriazko zirkunstantzien aurrean egokitzea.

5. TALDEKO ANIMAZIOKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK DESKRIBATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kolektiboen aisialdi eta entretenimenduko jarduerak dinamizatzeko animazio-teknikarik egokienak identifikatzea, betiere kolektiboen ezaugarriak eta mendekotasun-maila kontuan hartuta. - Jarduerak dinamizatzeko animazio-estrategiarik egokienak deskribatzea. - Aisialdi, kultura eta kirolaren arloko baliabideen modalitateak aztertzea. - Aisialdiko baliabideak garatzea. - Jarduerak motibatzea eta dinamizatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen aisialdiko jarduna. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako material ludikoak: motak, ezaugarriak, utilitateak, erabilera eta maneia. - Esku hartzeko estrategiak: motibazioa, parte-hartzea, integrazioa, taldeko kohesioa, elkarlana eta taldearenganako konfiantza. - Berrikuntza aisialdiko baliabideetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerak motibatzea eta dinamizatzea. - Erabiltzaileen interesak errespetatzea. - Ezaugarri bereziak dituzten pertsonekin aisialdia lantzearen garrantzia. Bizi-kalitaterako ekarpena.

6. ZAINZAILA INFORMALENTZAKO INFORMAZIOA PRESTATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako baliabide sozialak eta komunitarioak identifikatzea. - Esku-hartzeko kolektiboan beharren estalduraren arabera sailkatzea baliabideak. - Gizarte-laguntzaren, lanerako prestakuntzaren eta aisialdiko baliabideen fitxategia egitea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta familiakoei orientazioa emango dieten gizarte-laguntzako eta laguntza komunitarioko zerbitzugintzen eskaerak identifikatzea eta betetzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen, gaixoen edo minusbaliatuen zuzendutako baliabide eta zerbitzu komunitarioak. Motak eta ezaugarriak. - Eguneroko bizimoduaren jardueretarako izan beharreko autonomia pertsonalean banako laguntzaren edo familia-orientazioaren beharrak. - Gizarte-laguntzaren, lanerako prestakuntzaren eta aisialdiko baliabideen fitxategia. - Gizarte-laguntzako eta laguntza komunitarioko zerbitzugintza eskatzeko eskakizunak eta hori eskuratzeko bideak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiarekin harremanak eta komunikazio egokia ezartzearen balorazioa egitea. - Talde-lanean betetzen duen zeregina bere egitea eta elkarlanean jardutea.

7. ESKU HARTZEEN BALORAZIOA ETA JARRAIPENA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzeko tresnak identifikatzea. - Berriazko protokoloak betetzea. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta horien zaintzaile informalaren informazioa lortzeko teknikak aplikatzea. - Informazioa erregistratzeko eta transmititzeko tresnak ezaugarritzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzeko moduak eta tresnak. - Informazioa biltzeko ezarritako protokoloak. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta horien zaintzaile informalaren informazioa lortzeko teknikak: elkarrizketa pertsonalak, galdera sortak, testak, eta abar. - Informazioa erregistratzeko eta transmititzeko tresnak.

jarrerazkoak

- Dagokion errealitatea kritikoki behatzea.
- Teknika egokiak hautatzeko irudimena eta sormena izatea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Komenigarria da moduluari 1. edukiarekin hasiera ematea, “*Esku hartzearen ingurunea antolatzea*”, eta gizarte-harremanetan eragina duten faktore espazialei eta materialei garrantzia ematea.

Ondoren, 2. eduki multzoa landuko da, “*Laguntza psikosozialeko estrategiak eta gizarte-trebetasunak hautatzea*”. Gizarte-harremana erraztuko duten estrategiak aztertuko dira, eta gizarte-harremana errazten duten banako eta taldeko jardun-estrategiak eta jarduerak identifikatuko dira. Ingurunearekiko gizarte-harremanak hobetzeko eta mantentzeko dauden informatika-baliabideak aplikatuta egingo da hori guztia.

Jarraitzeko, 5. eduki multzoa landuko dugu, “*Taldeko animazioko teknikak eta estrategiak deskribatzea*”, eta taldeko aisialdi-jarduerak dinamizatzeko teknikarik egokienak identifikatuko dira.

Gero, 4. multzoko edukiak jorratuko dira, “*Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ondoan egoteko teknikak ezaugarritzea*”, eta, batez ere, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen haien ondoan norbait egoteko duten beharra identifikatu da.

6. multzoko edukiarekin jarraituko dugu, “*Zaintzaile informalentzako informazioa prestatzea*”. Garrantzi handia izango du baliabideak jardun-kolektiboen beharren arabera sailkatzeak, baita eguneroko bizimodurako jardueretarako autonomia pertsonalean banako laguntzako beharrak eta familia-orientazioak ere. Familiarekin harreman estuak ezartzea baloratuko da.

Aurreko edukiak landu ostean, 3. multzoaz arduratuko gara “*Psikologiaren, errehabilitazioaren eta lanerako prestakuntzaren arloko mantentze eta entrenamenduko teknikak eta ariketak aplikatzea*”. Ariketak egiteko material egokiak ezagutuko dira, autonomia pertsonaleko ohiturak hobetzera eta mantentzera zuzentzen diren teknikak eta prozedurak sailkatuko dira, baita gaitasun kognitiboak hobetzera zuzentzen diren teknikak eta prozedurak ere.

Amaitzeko, 7. multzoko edukiak jorratuko dira, “*Esku hartzeen balorazioa eta jarraipena egitea*”. Informazioa biltzeko moduak identifikatuko dira, protokoloak beteko dira eta informazioa biltzeko eta transmititzeko tresnak ezaugarrituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, zereginak egiteko moduetara bideratu beharko litzateke. Horrenbestez, hezkuntza-prozesua prozedura batzuen inguruan antolatu beharko litzateke. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte ikasleek lortu beharreko laguntza psikosozialerako abilezia sozialen eta teknioen euskarri eta laguntzako edukiak.

Unitate didaktiko bakoitzari ekitean, komeni da kasu praktiko edo egoera zehatz erraz batzuk oinarritzat hartzea, eta eztabaida txiki bat sortzen saiatzea. Gainera, ikasleen jakinmina eta motibazioa piztu beharko da.

Nahitaezkoa da informatika-programa bereizgarriren bat erabiltzea, ikasleek esku-hartzeen balorazioa eta jarraipena egiteko beharrezkoak diren trebetasunak eskura ditzaten. Hori dela eta, behar-beharrezkoa izango da informatika-gela edukitzea, ikasleek lanbide-jarduerak egin ahal izan ditzaten –ahal izanez gero banan-banan– eta egiten diren akatsak ikasteko prozesuan bertan zuzendu ahal izan daitezen.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Esku-hartzearen ingurunea antolatzea:
 - Gizarte-harremanetan eragina duten ingurumen-faktoreak eta faktore espazialak eta materialak deskribatzea.
 - Esku hartzeko beharrezkoak diren seinaleztapen- eta sinbolizazio-elementuak diseinatzea eta egitea.
- ✓ Laguntza psikosozialeko estrategiak eta gizarte trebetasunak hautatzea:
 - Gizarte-trebetasunak garatzeko teknikak eta estrategiak aplikatzea.
 - Gatazken ebazpena.
 - Gizarte-harremanak hobetzeko dauden informatika-baliabideak aplikatzea.
- ✓ Psikologiaren, errehabilitazioaren eta lanerako prestakuntzaren arloko mantentze eta entrenamenduko teknikak eta ariketak aplikatzea:
 - Ariketak eta jarduerak egiteko material egokiak erabiltzea.
 - Esku hartzeko teknikak eta prozedurak sailkatzea.
- ✓ Mendekotasun egoeran dauden pertsonen ondoan egoteko teknikak ezaugarritzea:
 - Erabiltzailearen autonomia-maila eta laguntza-beharrak egokitzea.
- ✓ Taldeko animazioko teknikak eta estrategiak deskribatzea:
 - Jarduerak dinamizatzeko animazio-teknikarik egokienak identifikatzea.
 - Aisialdiko baliabideak garatzea.
- ✓ Zaintzaile informalentzako informazioa prestatzea:
 - Esku-hartzeko kolektiboen beharren estalduraren arabera sailkatzea baliabideak.
 - Laguntza sozial eta komunitarioko zerbitzugintzaren eskaerak betetzea.
- ✓ Esku-hartzeen balorazioa eta jarraipena egitea:
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonengandik informazioa lortzeko teknikak aplikatzea.

5. lanbide-modulua

KOMUNIKAZIORAKO LAGUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Komunikaziorako laguntza
Kodea:	0214
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1019_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0250_2: Etxez etxeko arreta psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 10.a / 12.a / 13.a / 14.a / 15.a / 16.a / 17.a / 19.a / 23.a / 24.a / 26.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarekin lotzen ditu komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak, berriazko zailtasunak baloratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Komunikazioak pertsonen eguneroko jardunean duen eragina argudiatu du.
- “Komunikazio alternatiboaren eta handigarriaren” kontzeptuak definitu ditu.
- Komunikazio-sistema alternatibo eta handigarri nagusien ezaugarriak deskribatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarekiko komunikazioa eragozten edo errazten duten faktore nagusiak identifikatu ditu.
- Arreta-plan edo -proiektu individualizatuan jasotako komunikazioa bultzatzeari buruzko informazioak interpretatu ditu.
- Erabiltzailearekiko komunikazioan familiaren eta gizarte-ingurunearen inplikazioa errazteko teknikak hautatu ditu.
- Komunikazio-sistema alternatiboaren erabileran prebentzio eta segurtasuneko neurriak hartzeko beharra justifikatu du.

2. Komunikazioa bultzatzeko jarduerak egiten ditu, laguntza bidezko komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntza bidezko komunikazio-sistema alternatibo nagusien oinarriko erabilerak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Laguntza bidezko komunikazio-sistemen mezu sinpleak sortu ditu, erabiltzailearen komunikazioa eta arreta erraztuta.
- c) Laguntza bidezko komunikazioa errazten duten beste sistema eta elementu batzuk deskribatu ditu.
- d) Laguntza bidezko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.
- e) Erabiltzaileen ezaugarri zehatzen arabera aplikatu ditu beharrezko doikuntzak.
- f) Komunikazioa laguntzeko beharrezko laguntza teknikoak erabili ditu.
- g) Komunikazioa laguntzeko jardueretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileraren garrantzia justifikatu du.

3. Komunikazioa bultzatzeko jarduerak egiten ditu, laguntzarik gabeko komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laguntzarik gabeko sistema alternatiboen oinarriko egiturak deskribatu ditu.
- b) Mendekotasun-egoeran diren pertsonen arreta egiteko ohiko egoeretan erabiltzen diren zeinu nagusiak deskribatu ditu.
- c) Laguntzarik gabeko komunikazio-sistemen mezu sinpleak sortu ditu, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarentzako arreta eta komunikazioa erraztuta.
- d) Mendekotasun-egoeran diren pertsonen ezaugarri zehatzen arabera aplikatu ditu beharrezko doikuntzak.
- e) Laguntzarik gabeko komunikazioa errazten duten beste sistema eta elementu batzuk deskribatu ditu.
- f) Laguntzarik gabeko komunikazio-sistemen bitartez adierazitako mezuak ulertu ditu.

4. Komunikazioa laguntzeko jardunen jarraipena egiten du, ezarritako erregistro-protokoloak beteta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erregistro-protokoloak bete ditu, erabiltzailearen komunikazio-konpetentzia ebaluatzeko bide gisa.
- b) Erregistratutako informazioa diziplinarteko taldeari transmititzearen garrantzia argudiatu du.
- c) Familiaren esparruan komunikazioa laguntzeko jarraibideen betetze-maila egiaztatzeko irizpideak ezarri ditu.
- d) Hautatutako komunikazio-sistema osatzen duten elementuen erabilera zuzena egiaztatu du.
- e) Hautatutako komunikazio-sistemaren egokitzapenari buruzko transmisio-protokoloak identifikatu ditu.
- f) Komunikazio-beharretan aldaketak hautemateko adierazleak eta irizpideak identifikatu ditu.
- g) Egindako lanaren kalitatea hobetzeko informazioa lortzearen, erregistratzearen eta transmititzearen garrantzia argudiatu du.



c) Edukiak

1. KOMUNIKAZIO SISTEMAK ZERRENDATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak ezaugarritzea. - Komunikazio alternatiboaren eta handigarriaren erabileran estrategiak aplikatzea. - Komunikazioa laguntzeko plana/proiektua interpretatzea. - Komunikazio-sistema alternatiboaren erabileran, prebentzio- eta segurtasun-neurriak ezaugarritzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-prozesua: <ul style="list-style-type: none"> • Eskurapena eta garapena. • Komunikazio-funtzioak. • Komunikazioa errazten eta inhibitzen duten elementuak eta faktoreak. • Komunikazioa eta autodeterminazioa. • Komunikazioa eta bizi-kalitatea. • Testuinguru eta estilo elkarreragileak. • Baliabideak eta estrategiak. • Komunikazio-prozesuko asaldurak. - Komunikazio alternatiboa eta handigarria. - Teknika, komunikazio-eredu gisa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat testuingurutan komunikazioaren eta komunikazio-elkarreraginaren garrantzia baloratzea. - Portaera egokia izatea adineko pertsonetikiko eta minusbaliatuekiko harremanetan, eta, batez ere, komunikazio-arazoak agertzen direnean. - Zorroztasunez hautematea komunikazio-disfuntzioak.

2. LAGUNTZA BIDEZKO KOMUNIKAZIO ALTERNATIBOKO SISTEMEN BITARTEZ EGINDAKO KOMUNIKAZIOA LAGUNTZEKO JARDUEREN EZAUGARRIAK FINKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio alternatiboko sistemak ezaugarritzea. Orokortasunak. - Laguntza bidezko komunikazio-sistemak ezaugarritzea eta erabiltzea: Bliss, komunikazio-sistema piktografikoa. - Komunikazio-sistema alternatiboa ezartzeko esku hartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Estilo elkarreragileak. • Adierazgarritasuna eta sormena. • Arazoen ebazpena. • Ingurumenaren komunikazio-egituraren balorazioa. • Komunikazio-jokabideen erregistro-tresnak. • Berariazko esku-hartzeko estrategiak. - Bliss eta komunikazio-sistema piktografikoko lengoia alternatiboaren erabilera sistematikoa egitea, eguneroko bizimoduko jarduera simulatuetan eta ulermen- eta adierazpen-mailako esku-hartze profesionaleko jarduera simulatuetan. - Laguntza eta arreta fisiko eta psikosozialeko jardueretarako beharrezko adierazpen-bilduma lantzea eta aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eskariaren adierazpena. • Sentimenduen adierazpena. • Informazioaren eskaera. - Laguntza teknologikoen erabilera. - Laguntza bidezko beste komunikazio-sistema ez-estandarizatu batzuk identifikatzea.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza bidezko komunikazio-sistema nagusiak: Bliss eta komunikazio-sistema piktografikoa. - Bliss eta komunikazio-sistema piktografikoaren oinarritzko hizkuntza-egiturak eta sintaxia. - Teknikariaren lanbide-beharretara egokitutako oinarritzko hiztegia. - Komunikazio-sistema alternatiboa ezartzeko arazoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza bidezko komunikazio-sistema baloratzea. - Portaera egokia izatea adineko pertsonetikiko eta minusbaliatuekiko harremanetan, eta, batez ere, komunikazio-arazoak agertzen direnean.

3. LAGUNTZARIK GABEKO KOMUNIKAZIO ALTERNATIBOKO SISTEMEN BITARTEZ EGINDAKO KOMUNIKAZIOA LAGUNTZEKO JARDUEREN EZAUGARRIAK FINKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio alternatiboko sistemak ezaugarritzea. Orokortasunak. - Laguntzarik gabeko komunikazio-sistemak ezaugarritzea eta erabiltzea: zeinu-mintzaira espainiarra eta bimodala. - Komunikazio-sistema alternatiboa ezartzeko esku hartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Estilo elkarreragileak. • Adierazgarritasuna eta sormena. • Arazoen ebazpena. • Ingurumenaren komunikazio-egituraren balorazioa. • Komunikazio-jokabideen erregistro-tresnak. • Berariazko esku-hartzeko estrategiak. - Zeinu-mintzaira espainiarreko eta bimodaleko lengoaia alternatiboen erabilera sistematikoa, eguneroko bizimoduko jarduera simulatuetan eta ulermen- eta adierazpen-mailako esku-hartze profesionaleko jarduera simulatuetan. - Zeinu-mintzairako eta lengoaia bimodaleko oinarritzko hiztegia erabiltzea. - Laguntza eta arreta fisiko eta psikosozialeko jardueretarako beharrezko adierazpen-bilduma lantzea eta aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Eskariaren adierazpena. • Sentimenduen adierazpena. • Informazioaren eskaera. - Laguntza teknologikoen erabilera. - Laguntzarik gabeko beste komunikazio-sistema ez-estandarizatu batzuk identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntzarik gabeko komunikazio-sistema nagusiak: zeinu-mintzaira espainiarra eta bimodala. - Zeinu-mintzaira espainiarraren oinarritzko hizkuntza-egiturak eta sintaxia. - Zeinu-mintzairako ezaugarri nagusiak. - Teknikariaren lanbide-beharretara egokitutako oinarritzko hiztegia. - Komunikazio-sistema alternatiboa ezartzeko arazoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza bidezko komunikazio-sistema baloratzea. - Portaera egokia izatea adineko pertsonetikiko eta minusbaliatuekiko harremanetan, eta, batez ere, komunikazio-arazoak agertzen direnean.

4. KOMUNIKAZIOA LAGUNTZEKO JARDUNEN JARRAIPENA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-kompetentziak erregistratzeko tresnak betetzea. - Komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak identifikatzea. - Familiaren eta gizarte-ingurunearen inplikazioa egiaztatzeke irizpideak identifikatzea. - Jasotako informazioa diziplinarteko taldeari transmititzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-kompetentziak erregistratzeko tresnak. - Komunikazio-kompetentzien erregistroetako adierazle esanguratsuak. - Diziplina taldearen artean informazioa transmititzeko metodoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-sistemaren eraginkortasuna baloratzeko beharra justifikatzea. - Talde-lanean betetzen duen zeregina bere egitea eta elkarlanean jardutea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Moduluari hasiera emateko, komeni da komunikazio-sistemekin lotzen diren edukiak garatzea. Hastapen honen helburua da modulu hau garatzeko garaian oinarriko ezagutzak finkatzea, hau da, funtsezkoa da komunikazioa errazten eta inhibitzen duten faktoreak eta elementuak ezagutzea, baita komunikazio-prozesuan gertatzen diren alterazioak ere.

Laguntza bidezko eta laguntzarik gabeko komunikazio alternatiboko sistemen bitartez komunikazioa laguntzeko ezaugarriak jorratzen dituen eduki multzoarekin jarraituko da. Laguntza bidezko eta laguntzarik gabeko komunikazio-sistemak bereizten jakingo da, komunikazio alternatiboko sistemak ezagutuko dira eta Bliss eta komunikazio-sistema piktografikoko laguntza bidezko komunikazio-sistemak erabiliko dira, baita laguntzarik gabeko komunikazio-sistemak ere (zeinu-mintzaira espainiarra eta lengoia bimodala).

Azkenik, 4. eduki multzoa landuko da, “*Komunikazioa laguntzeko jardunen jarraipena egitea*”. Komunikazio-kompetentzien erregistroko adierazle esanguratsuak ezagutuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakaslearen zeregina da ikasleak komunikazio-sistemen ezagutzan gidatzea, hainbat sistema bidez komunikazio-jarduerak aplikatzeko. Horrenbestez, ikasleek komunikazio zuzena erabili behar izateko egoki ezaugarritutako suposizio sinpleak planteatzea gomendatzen da.

Garrantzi handikoa da komunikazioa laguntzera zuzentzen diren jardunen jarraipenaren datuak maneiatzeko gauza izatea ikasleak. Hori dela eta, informatika-ezagutzak garrantzi handikoak dira moduluaren azken zati honetan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Komunikazio-sistemak zerrendatzea:
 - Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak ezaugarritzea.
- ✓ Laguntza bidezko komunikazio alternatiboko sistemen bitartez egindako komunikazioa laguntzeko jardueren ezaugarriak:
 - Komunikazio alternatiboko sistemak ezaugarritzea.
 - Laguntza bidezko komunikazio-sistemak ezaugarritzea eta erabiltzea.
- ✓ Laguntzarik gabeko komunikazio alternatiboko sistemen bitartez egindako komunikazioa laguntzeko jardueren ezaugarriak:
 - Komunikazio alternatiboko sistemak ezaugarritzea.
 - Laguntzarik gabeko komunikazio-sistemak ezaugarritzea eta erabiltzea: zein-mintzaira espainiarra eta lengoia bimodala.
- ✓ Komunikazioa laguntzeko jardunen jarraipena:
 - Komunikazio-sistemaren doikuntza edo aldaketa zehazten duten irizpideak identifikatzea.
 - Familiaren eta gizarte-ingurunearen inplikazioa egiaztatzeko irizpideak identifikatzea.



6. lanbide-modulua ETXEKO LAGUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Etxeko laguntza
Kodea:	0215
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	264 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC0251_2: Bizikidetasun-unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduari lotutako jarduerak garatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 4.a / 6.a / 7.a / 10.a / 17.a / 18.a / 19.a / 22.a / 23.a / 24.a / 25.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxeko lan-plangintza antolatzen du, ezarritako jarraibideak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Lan-plangintzaren ezaugarriak identifikatu ditu.
- Lan-plangintza mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren errealitateara egokitzearen garrantzia deskribatu du.
- Etxean egin beharreko zereginak identifikatu ditu.
- Eguneko etxeko zereginak sekuentziatu ditu, lan-plangintzaren arabera eta bertan egindako egokitzapenen arabera, halakorik beharrezkoa izan bada.
- Etxean bete beharreko eskaerak eta beharrak aztertu ditu.
- Bizikidetasun-unitatearen berezko ezaugarri kulturalak errespetatu ditu.
- Etxean mendekotasun-egoeran dagoen pertsonarentzako arreta-plan motak identifikatu ditu.
- Denborak eta ahaleginak errentabilizatzen begira, jardueren sekuentzia egokitzearen garrantzia baloratu du.

2. Gastuaren kudeaketa planifikatzen du, eta administrazioko oinarrizko teknikak bizikidetasun-unitatearen beharrekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bizikidetasun-unitatearen gastuekin lotzen den dokumentazioa aztertu du.
- b) Etxeko kudeaketaren dokumentuak interpretatzen jakin beharra ezagutu du.
- c) Hileko gastu orokorreko kontu-sailen txostena landu du.
- d) Bizikidetasun-unitatearen ezohiko gastuen txostena landu du.
- e) Bizikidetasun-unitate baten hileko aurrekontuaren banaketa baldintzatzen duten faktoreak zerrendatu ditu.
- f) Ereduzko bizikidetasun-unitate baten izakinak hornitzearen gastuak eta ohiko gastuak zerrendatu eta sailkatu ditu.
- g) Hainbat bizikidetasun-unitateren hileko gastuak aztertu ditu.
- h) Sarrereren eta gastuen arteko orekaren beharra baloratu du.

3. Bizikidetasun-unitatearen hornikuntza antolatzen du, produktuen ezaugarriak deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publizitate-dokumentazioaren motak aztertu ditu, produktuak hautatuta.
- b) Teknologia informazio-iturri gisa baloratu ditu.
- c) Erosketa-zerrenda zehaztu du.
- d) Kontsumoko produktuen eta elikagaien etiketak aztertu ditu.
- e) Produktuak behar bezala biltegitatzeko leku egokiak identifikatu ditu, produktuen ezaugarriak kontuan izanik.
- f) Elikagaiak, garbiketa-produktuak, higiene-produktuak eta etxea mantentzeko produktuak saltzera zuzentzen diren establezimendu eta zerbitzu motak zerrendatu ditu.
- g) Produktuak kokatzeko irizpideak ezarri ditu, antolamenduaren, segurtasunaren eta higienearen arloko irizpideei erreparatuta.

4. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxea mantentzeko lanak prestatzen ditu, teknikak eta produktuak kalitatearen, segurtasunaren eta higienearen arloko irizpideekin hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etxean sortzen diren hondakin eta zabor motak aztertu ditu.
- b) Etxean erabiltzen diren etxetresna elektrikoen motak (garbigailua, lisagailua, xurgagailua eta abar), maneiua, arriskuak eta mantentze-lanak identifikatu ditu.
- c) Lurzoruak, tresnak, altzariak, leihoak eta higiene-ontziak garbitzeko teknikak txosten batean bildu ditu.
- d) Erabili beharreko garbiketa eta desinfekzioko produktuak identifikatu ditu, eta aplikazioak erabiltzeko arriskuak eta etxean izango duten kokalekua deskribatuko ditu.
- e) Etxean instalazio elektrikoak maneiatzaren eta erabiltzearen ondoriozko arriskuak deskribatu ditu.
- f) Arropa makinaz eta eskuz garbitzeko teknikak deskribatu ditu, betiere jantziaren ezaugarrien arabera, orban motaren arabera eta zikinkeria-mailaren arabera.
- g) Etxea mantentzeko lanetarako produktuen segurtasun, higiene eta prebentzioaren arloko arauak betetzea baloratu du, baita produktu horiek ezabatzeko arauak betetzea ere.
- h) Jantzien etiketak interpretatzeko jarraibideak deskribatu ditu, eta garbitzeko prozesuaren arabera sailkatu du arropa.



5. Menuko elikagaiak hautatzen ditu, eta horien ezaugarriak eta proportzioak ezarritako aginduen arabera finkatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Elikadurarekin eta nutrizioarekin lotzen diren oinarritzko kontzeptuak aztertu ditu.
- Elikagaiak ezaugarrien arabera sailkatu ditu.
- Dieta osasuntsu baten ezaugarriak identifikatu ditu, baita barnean hartu behar dituen osagai motak ere.
- Etxeko anoak eta neurriak identifikatu ditu.
- Ontziraturako elikagaien nutrizio-etiketak aztertu ditu.
- Eguneko ahorakinaren parte izan behar duten elikagaiak hautatu ditu, betiere ezarritako aginduak kontuan izanik.
- Dieta osasuntsuaren garrantzia baloratu du.

6. Jakiak prestatzeko prozesuan sukaldaritzako oinarritzko teknikak aplikatzen ditu, erabiltzailearen beharrak eta ezarritako protokoloak aintzat hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Elikagaiak prestatzean, higiearen, arrisku-prebentzioaren eta produktuak ezabatzearen arloko neurriak aplikatzearen beharra ezagutu du.
- Etxeko sukaldaritzan aplikatu beharreko oinarritzko sukaldaritzako teknikak identifikatu ditu, eta, kasuak kasu, aplikazio faseak, prozedurak, denborak eta sukaldeko tresnak adierazi ditu.
- Sukaldaritzako errezetak bildu ditu, eta mahaikideen kopuruaren eta horien berariazko beharren arabera erabili beharreko kantitateak eta denborak egokitu ditu.
- Jakiak prestatu aurreko prozedurak identifikatu ditu: produktuak desizoztea, ebakitzea, zuritzea, zatikatzea eta garbitzea.
- Jakien aurreelaborazioari ekiteko beharrezko materialak, lanabesak eta etxetresna elektrikoak sailkatu ditu: desizoztekoak, zuritzeakoak, ebakitzekoak eta garbitzekoak.
- Bizikidetasun-unitateko kideen dietarako egokiak diren lehen platerak, bigarren platerak eta postreak elaboratzeko sukaldaritzako oinarritzko tresnak erabili ditu.
- Elikagaiak manipulatzeko eta prozesatzeko ezarritako segurtasun- eta higie-arauek betetzearen beharra ezagutu du.
- Elikagaien aurkezpenaren garrantzia baloratu du.

7. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen etxeko lan-plangintzaren jarraipena egiten du, ezarritako protokoloa deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Informazio-iturriak, jarraipen-teknikak eta arrisku-egoerak hautemateko prozesua identifikatu du.
- Baliabideak aztertu ditu, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharren arabera hautatu ditu.
- Datuak ezarritako euskarrian erregistratu ditu.
- Jasotako informazioa behar bezala interpretatu du.
- Beste profesional batzuekin zein egoeratan lankidetzan aritu beharra dagoen identifikatu du.
- Zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ebaluazioaren garrantzia baloratu du.

c) Edukiak

1. BIZIKIDETASUN UNITATEKO LAN PLANGINTZA ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eguneko lana planifikatzea. - Etxeko lana antolatzea: eguneko plana eta asteko plana. - Hainbat bizikidetasun-unitaterako lan-plangintzak egitea. - Etxeko oinarrizko beharrak ezaugarritzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-plangintza osatzen duten elementuak. Ezaugarriak. - Lan-plangintza lantzeko prozedurak. - Etxean bete beharreko eskaerak eta beharrak zehazten dituzten faktoreak: <ul style="list-style-type: none"> • Familiako kideen kopurua. • Langileen egoera. • Etxeko espazioak. - Etxeko zereginak. Ezaugarriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetasun-unitatearen egoeren aurrean erantzuteko eta behatzeko ahalmena izatea. - Tratu egokia izatea adineko pertsonetikiko harremanetan.

2. BIZIKIDETASUN UNITATEAREN AURREKONTUAREN KUDEAKETA PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetasun-unitatearen gastu orokorrak aurreikustea. - Hileroko gastuaren kontu-sailak zerrendatzea. - Familia-unitatearen hileko aurrekontua lantzea. - Gastuen lehentasunak justifikatzea. - Gastuen banaketarik egokiena egitea. - Sarreraren eta gastuen arteko oreka egiaztatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontua egiteko kontuan hartu beharreko parametroak. - Etxeko gastuen hileko kontusaila: ohiko eta ezohiko gastuak. Banaketa. Ehuneko araberako doikuntza. - Bizikidetasun-unitatearen gastuei lehentasuna ematea baldintzatzen duten faktoreak. - Etxeko kudeaketaren dokumentazioa: fakturak (ura, gasa, argia, telefonoa...), aurrekontuak, mantentze-zerbitzuen zerrendak, larrialdi-kontaktuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetasun-unitatearen egoeren aurrean erantzuteko eta behatzeko ahalmena izatea. - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen berriazko zirkunstantzien aurrean egokitzea.

3. BIZIKIDETASUN UNITATEAREN HORNIKUNTZA ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elikagaiak eta etxeko higiene- eta mantentze-produktuak saltzera zuzentzen diren establezimendu eta zerbitzu motak identifikatzea, horien ezaugarriak, abantailak eta eragozpenak identifikatuta. - Hainbat erosketa-sistema erabiltzea: Internet eta telefonoa. - Produktuak ipini eta behar bezala gordetzeko leku egokiak identifikatu eta

	<p>justifikatzea, horien ezaugarriak, kontserbatzeko baldintzak eta irisgarritasuna kontuan izanda.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kasu bakoitzean ezarritako parametroen arabera hartu beharreko lehentasuneko produktuak identifikatzea. - Interneten argitara emandako publizitate-liburuxkak abiapuntu izanik, erosketa-zerrenda egitea. - Gastua ezarritako aurreikuspena egokitzearen ebaluazioa egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erosketak egiteko establezimenduen motak: denda txikiak eta salgune handiak. Alde onak eta txarrak. - Zuzeneko erosketa eta erosketa birtuala. Erosteko hainbat aukeraren alde onak eta txarrak. - Erosketa-zerrenda. Zerrenda zehazten duten faktoreak. - Elikagaien erosketa. Produktu freskoak eta elaboratuak. Iraungitasun-data. - Higiene pertsonalerako eta etxearen garbiketarako produktuen erosketa. Hautatzeko irizpideak. - Etxean elikagaiak kontserbatzeko sistemak eta metodoak. Produktu freskoen eta elaboratuen kontserbazioa. - Etxean biltegia antolatzeko irizpideak. Produktuen antolamendua armairuetan eta jakitokietan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo arduratsua baloratzea. - Talde-lanean betetzen duen zeregina bere egitea eta elkarlanean jardutea.

4. ETXEA MANTENTZEKO ETA GARBITZEKO LANAK PRESTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko garbiketan eta higiean erabiltzen diren etxetresna elektrikoak (garbigailuen, lehorgailuen, lisagailuen, xurgagailuen,...) motak, maneioak, arriskuak eta mantentze-lanak deskribatzea. - Lurzoruak, gainazalak, tresnak, altzariak, leihoak eta higie-ontziak garbitzeko teknikak deskribatzea. - Etxean sortzen diren hondakin eta zabor motak deskribatzea, eta horiek behar bezala sailkatzeko eta, ondoren, ezabatzeko modua adieraztea. - Etxeko arropen eta jantzien etiketak interpretatzea, eta garbitzeko prozesuaren arabera sailkatzea arropa. - Arropa makinaz eta eskuz garbitzeko teknikak aztertzea, eta garbitzeko produktuak eta programak adieraztea, betiere jantziaren ezaugarrien arabera, orban motaren arabera eta zikinkeria-mailaren arabera. - Jantzien egoera ona egiaztatzea eta birpasatzea: botoiak jostea, behealdeak jostea, eta abar. - Arropak lisatzea, eta, horretarako programa zuzena erabiltzea, arroparen ezaugarrien eta konposizioaren arabera. - Jantzeko arropak, etxeko arropak eta garbiketako produktuak eta materialak kasu kasu dagozkien lekuetan ipintzea. - Elikagaiak prestatzeko eta/edo kontserbatzeko erabiltzen diren sukaldeko tresneria, tresnak eta etxetresna elektrikoak deskribatzea eta alderdi hauek azaltzea: funtzioak, erabiltzeko arauak, manipulatzearren arriskuak eta beharrezko mantentze-lanak. - Etxeko sukaldeetan erabiltzen diren sukalde-plaketan, labeetan, sukalde-tresnerietan eta etxetresna elektriko txikietan erabilitako produktuak eta teknikak deskribatzea. - Sukaldeko tresnerien eta etxetresna elektriko txikien mantentze-lanak egitea, fabrikatzaileak emandako jarraibideen arabera.
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitzaren garbiketa-teknikak: garbiketaren mende dauden espazioak. Berariazko ezaugarriak. - Garbitzeko zereginak: garbitzea, lanbasa pasatzea, erraztea, eta abar. - Garbiketako materialak, produktuak eta lanabesak: eskuilak, lanbasa, mopa eta abar. - Garbiketarako etxetresna elektrikoak: xurgagailua, ontzi-garbigailua, garbigailua, lehorgailua. Erabilera eta mantentzea. - Etiketak: interpretazioa. - Altzarien garbiketa eta kontserbazioa. - Arropa garbitzeko, lisatzeko eta birpasatzeko teknikak. - Garbigailua, lehorgailua eta beste etxetresna elektriko batzuk mantentzeko lanak. - Zaborra birziklatzeko ingurumen-irizpideak. - Etxeko instalazioen arrisku elektrikoak. Maneiatzeko prekauzioak eta segurtasun-neurriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tratu egokia izatea adineko pertsonetikiko eta/edo minusbaliatuekiko harremanetan. - Bizikidetasun-unitatearen egoeren aurrean erantzuteko eta behatzeko ahalmena izatea.

5. MENUKO ELIKAGAIAK HAUTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elikagai motak ezaugarritzea. - Elikagaia eta nutrientea bereiztea. - Behar pertsonalen araberrako menuak identifikatzea. - Dieta osasuntsuak baloratzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - “Elikagaia” eta “nutrizioa” kontzeptuak. - Elikagaiak. Elikagai multzoak. Sailkapen funtzionala. Elikagai moten ezaugarri nutritiboak. - Energiaren eta nutrienteen inguruko gomendioak. Giza organismoaren nutrizio-premiak. Gomendatutako ahorrakina. - Dieta. Dietaren kalitatea. - Dieta motak: <ul style="list-style-type: none"> • Normalak. • Terapeutikoak. • Oinarrizkoak. • Bereziak. • Dieta osasuntsuak edo horren parte diren elikagaiak. • Dieta mediterranea. Ezaugarriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Dieta orekatuaren garrantziaz jabetzea. - Elikadura osasuntsuaren ohiturak garatzea.

6. SUKALDARITZAKO OINARRIZKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jakiak prestatu aurreko prozedurak deskribatzea: ohiko elikadura osatzen duten produktuak desizoztea, ebakitzea, zuritzea, zatikatzea eta garbitzea. - Familiako sukaldaritzan aplikatu beharreko oinarrizko sukaldaritzateknikak ezaugarritzea: egostea, galdarraztatzea, irakitea, frijitzea,
----------------	--

	<p>erregostea, erretzea. Kasuak kasu, erabili beharreko aplikazio faseak, prozedurak, jarduteko moduak, denbora, sukaldeko tresneria, lanabesak eta etxetresna elektrikoak adieraztea, baita lotzen diren emaitzak ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetasun-unitateko kideen dietara egokitutako lehen platerak, bigarren platerak eta postreak elaboratzea. - Beharrezkoa izanez gero, elikagaiak kontserbaziorako prestatzea. - Garbiketa-produktuak hautatzea, eta erabilitako materialak garbitzea eta ipintzea. - Elikagaien manipulazioko prebentzioa eta segurtasuna justifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sukaldeko tresneria, lanabesak eta etxetresna elektrikoak: sukaldeko tresneria, baxera, mahai-tresneria, lanabesak, etxetresna elektriko txikiak eta handiak. Ezagutza, erabilera eta mantentze-lanak. - Elikagaien manipulazioko oinarrizko printzipioak. - Produktuen aurreelaborazioko prozedurak. Elikagaien oinarrizko tratamendua: desizoztea, garbitzea, zuritzea, zatikatzea eta zukutzea. - Sukaldaritzako oinarrizko teknikak. Ezagutza eta aplikazioa: <ul style="list-style-type: none"> • Plantxan, parrilan eta labeen erretzea. • Egoste tradizionala eta lurrinetan egostea, presio bidez sukaldatzea eta sukaldatze motela. • Irakitea. • Frijitzea. • Mikrouhin bidez sukaldatzea. - Erreduzko platerak elaboratzeko eta egiteko eskema: entsaladak, eltzekariak, zopak, saldak, kremak, zizka-mizkak eta janurrekoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Adineko pertsonen eta minusbaliatuen berariazko zirkunstantzien aurrean egokitzea. - Elikadura osasuntsuaren ohiturak garatzea. - Higiene eta garbiketako ohiturak hartzea.

7. LAN PLANGINTZAREN JARRAIPENA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen-orriak betetzea. - Jarraipen-teknologiak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen-orriak: motak, betetzeko moduak eta erregistroa. - Teknologia berriak informazioa artxibatzean eta erregistratzean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordenaz eta zorrotasunez lan egitea. - Metodo edo sistema berriekiko interesa azaltzea eta horiek alderatu eta asimilatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Moduluari hasiera emateko komeni da lehenik 1. multzoa lantzea, “*Bizikidetasun-unitateko lan-plangintza antolatzea*”. Etxean estali beharreko beharrak eta eskaerak ezagutu beharko dira, familiako kideen kopuruaren, egoera pertsonalaren eta etxeke espazioen arabera.

Gero, 2. multzoari ekingo diogu, “*Bizikidetasun-unitatearen aurrekontuaren kudeaketa planifikatzea*”. Bizikidetasun-unitateko gastuetan lehentasunak baldintzatzen dituzten faktoreak ezagutuko dira.

Jarraitzeko, 3. multzoa aztertuko da, “*Bizikidetasun-unitatearen hornikuntza antolatzea*”. Erosketak egiteko establezimendu motak, erosteko sistema motak, elikagai motak eta abar ezagutuko dira.

Establezimendu motak ezagutu ostean, erabiltzailearen behar dietetikoaren eta nutrizionalen arabera menuak elaboratzeko elikagairik egokienak ezagutuko dira.

Ondoren, sukaldaritzako oinarrizko teknikak aplikatuko ditugu, eta, suposizio praktikoetan, egin beharreko lehen platerak, bigarren platerak eta postreak iradoki ditugu. Gero, etxea mantentzeko eta garbitzeko lanekin jarraituko da.

Amaitzeko, 7. multzoko edukiak jorratuko dira, “*Lan-plangintzaren jarraipena egitea*”.

2) Alderdi metodologikoak

Unitate didaktikoak egoera errealetatik hurbil dauden kasu praktikoaren bitartez edo suposizio sinpleen bidez aurkeztu beharko dira, transmitituko den informazioarekiko jakinmina pizteko ikasleengan.

Aparatuak eta tresnak maneiatu beharra barnean hartzen duten unitate didaktikoetan banabanako praktikak egin beharko dira, baldin eta eskura dagoen ekipamenduak horretarako aukera ematen badu.

Informatika-sistemak erabiltzea garrantzi handikoa da modulu honen amaierarako.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Bizikidetasun-unitateko lan-plangintza antolatzea:
 - Hainbat bizikidetasun-unitaterako lan-plangintzak egitea.
 - Etxeko oinarrizko beharrak ezaugarritzea.
- ✓ Bizikidetasun-unitatearen aurrekontuaren kudeaketa planifikatzea:
 - Hileroko gastuaren kontu-sailak zerrendatzea.
 - Familia-unitatearen hileko aurrekontua lantzea.
 - Gastuen banaketa egitea.
- ✓ Bizikidetasun-unitatearen hornikuntza antolatzea:
 - Erosketa-sistemak ezaugarritzea.
 - Ezarritako parametroen arabera hartu beharreko lehentasuneko produktuak identifikatzea.
- ✓ Etxea mantentzeko eta garbitzeko lanak prestatzea.
- ✓ Menuko elikagaiak hautatzea:
 - Behar pertsonalen araberrako menuak identifikatzea.
 - Dieta osasuntsuak baloratzea.
- ✓ Sukaldaritzako oinarrizko teknikak aplikatzea:
 - Sukaldaritzako oinarrizko teknikak ezaugarritzea.
 - Menu osoa elaboratzea.
 - Lan plangintzaren jarraipena egitea.

7. lanbide-modulua OSASUN ARRETA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Osasun-arreta
Kodea:	0216
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	198 ordu
Kurtsua:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Osasun- eta laguntza-prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1017_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC1018_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0249_2: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsonen zuzenduta.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 4.a / 8.a / 9.a / 10.a / 17.a / 19.a / 23.a / 24.a / 25.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako osasun-arretako jarduerak antolatzen ditu, eta pertsona horien ezaugarriekin eta beharrek lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sistema kardiobaskularraren, arnas-sistemaren, digestio-sistemaren eta ugaltze-sistemaren oinarriko ezaugarri anatomofisiologikoak eta asaldurarik ohikoenak deskribatu ditu.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta fisikoaren ezaugarri eta behar nagusiak deskribatu ditu.
- Mendekotasun-egoerekin lotzen diren narriadura fisikoko eta osasun-narriadurako aztarna nagusiak identifikatu ditu.
- Erabiltzailearen egoera fisikoa eta osasuna laguntzen edo eragozten duten ingurunearen ezaugarriak identifikatu ditu.
- Zaintza-planean ezarritako osasun-arretako aginduak interpretatu ditu.

- f) Osasun-arretarako ingurumen-baldintza egokiak definitu ditu.
- g) Pertsonak osasun-jardueretan parte-hartzearen garrantzia argudiatu du.
- h) Nork bere burua zaintzea sustatzearen garrantzia baloratu du.

2. Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ezaugarrien arabera aplikatu ditu mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Oheratuta dauden pertsonak kokatzeko teknika ohikoenak aplikatu ditu, pertsonen egoera eta ezaugarriak aintzat hartuta.
- b) Mendekotasun egoeran dauden pertsonak mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak aplikatu ditu, pertsonen egoera eta baldintzak aintzat hartuta.
- c) Zamatze segururako eta langilearengan lesioak agertzea prebenitzeko prozedurak aplikatu ditu.
- d) Oheratuta dauden pertsonak mobilizatu, garraiatu eta kokatzeko eta pertsonok joan-etorriak egin ditzaten laguntza tekniko egokienak erabili ditu, beren egoera eta baldintzak aintzat hartuta.
- e) Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu.
- f) Protesiak garbitzeko eta zaintzeko teknikak deskribatu ditu, material eta produktu egokiak zehaztuta, pertsona erabiltzailearen egoera eta baldintzak aintzat hartuta.
- g) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari eta bere ingurukoei hainbat jarraibide eskaini dizkie, mugikortasunari eta laguntza teknikoan mantentzeko dagokienez, autonomoak izan daitezzen.
- h) Pertsonaren autonomia sustatzeko beharrekiko sentsibilitatea erakutsi du.

3. Osasun-laguntzako jarduerak ezaugarritzen ditu, eta erabiltzailearen beharrak eta ezaugarriak zaintza-planean ezarritakoarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileen miaketa errazteko jarrera anatomikorik egokienak hautatzea.
- b) Sendagaiak prestatu ditu eta sendagaiak ematea aurreikusi du, betiere zaintza-plan individualizatuaren eta bide eta produktu bakoitzerako berariazko aginduetan ezarritako jarraibideak beteta.
- c) Sendagaiak ematearekin lotzen diren arrisku nagusiak identifikatu ditu.
- d) Hotz eta beroko tokiko tratamenduak hautatu ditu, zaintza-plan individualizatuaren jarraibideen arabera.
- e) Sendagaiak ematean, pertsonaren egoera orokorrean ager daitezkeen asalduren aztarnak identifikatu ditu.
- f) Pertsonaren bizi-konstanteak hartu ditu, material egokiak erabilia eta ezarritako aginduak jarraituta.
- g) Erabiltzaileak eta haren inguruneak osasun-jardueretan parte har dezaten erraztearen garrantzia baloratu du.
- h) Ezarritako babes, higiene eta segurtasunaren arloko neurriak erabili ditu, langileentzat zein erabiltzailearentzat.

4. Elikagaiak aholkatzen laguntzeko eta elikatzen jarduerak antolatzen ditu, eta, horretarako, beharrezko teknikak, tresnak eta laguntzak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Instituzioko otorduen zerbitzua eta banaketa antolatu du, dieta-orriko jarraibideei jarraituta.
- b) Aholkatzen laguntzeko teknikak aplikatu ditu, pertsona bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak kontuan izanda.

- c) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonari eta familiei elikagaiak behar bezala emateari buruzko informazioa eman zaie.
- d) Pertsonen ahorakina zaintza-planarekin bat datorrela egiaztatu du.
- e) Pertsonari eta familiari eraizkinak biltzeko eta, ondoren, ezabatzeko beharrezko materialei buruzko aholkuak eman dizkie.
- f) Otordua pertsonarentzat une atsegina izatearen garrantziarekiko sentsibiltatea erakutsi du.
- g) Ahoratze-egoerekin lotuta ager daitezkeen arriskuak identifikatu ditu.
- h) Arriskuen prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu.

5. Osasun-arretako jardueren kontrola eta jarraipena egiten du, ezarritako behaketa- eta erregistro-protokoloak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileen egoera fisikoa eta osasun-egoera behatzeko, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko protokoloek bete beharreko ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Eskuzko eta informatika bidezko erregistro- eta behaketa-protokoloak bete ditu, kasu bakoitzerako ezarritako jarraibideen arabera.
- c) Egindako jardueri eta agertu ziren gorabeheri buruzko informazio zuzena eta osoa bildu du.
- d) Bere kargura dauden pertsonen informazioa lortu du, hainbat bitartekoren bitartez.
- e) Pertsonaren bilakaera fisikoaren jarraipena egiteko aurreikusitako behaketa-tresnak eta -teknikak aplikatu ditu, lortutako datuak ezarritako prozeduraren arabera erregistratuta.
- f) Zaintza-plan individualizatuaren datuak erregistratu ditu, horien komunikazio arduratsua kontuan izanik.
- g) Ezarritako prozeduren bitartez, eta une egokian, transmititu du informazioa.
- h) Pertsonaren bilakaera fisikoaren eta osasun-bilakaeraren kontrola eta jarraipena egitearen garrantzia argudiatu du.

c) Edukiak

1. OSASUN ARRETA KO JARDUERAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen osasun-arretako beharrak identifikatzea. - Osasun-arretako ingurumen-baldintzak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Honako sistema hauen printzipio anatomofisiologikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Sistema kardiobaskularrenak. • Arnas-sistemarenak. • Digestio-sistemarenak. • Ugaltze-sistemarenak. - Autozaintza sustatzeko estrategiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioaren zuzentasuna, sekretu profesionalari eutsita. - Segurtasun- eta higiene-arauekiko errespetua eta horren garrantziaren balorazioa.

2. MOBILIZATU, LEKUALDATU ETA JOAN-ETORRIAK EGITEKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lekualdaketak egiteko teknikak ezaugarritzea, erabiltzailearen egoeraren eta baldintzen arabera egokituta. - Erabiltzaileen joan-etorrietarako eta lekualdaketetarako laguntza teknikoak erabiltzea eta egokitzea, betiere erabiltzailearen osasun-egoeraren arabera. - Oheratuta dagoen pertsona bat mobilizatzeko eta kokatzeko maniobrak ezaugarritzea. - Lekualdaketak aulki gurpildunetan egitea. - Lanbide-arriskuen prebentzioan gorputz-mekanikaren printzipioak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Giza gorputzaren sostengu- eta mugimendu-printzipio anatomofisiologikoak. - Sistema osteomuskularra. - Giltzaduren biomekanika. Sistema osteomuskularraren mekanika. - Hezurak, muskuluak eta giltzadurak (egitura, funtzioak, sailkapena eta izena). Mugimendu motak. - Patologiarik ohikoenak: hezurretakoak, giltzaduretakoak eta muskularrak. - Mobilizazioko teknikak: deskribapena eta aplikazioa. - Joan-etorrietarako teknikak: deskribapena eta aplikazioa. - Lekualdaketetarako teknikak: deskribapena eta aplikazioa. - Mendeko pertsonentzat, joan-etorriak egin, lekualdatu eta mobilizatzeko laguntza teknikoak: deskribapena, erabilera eta egokitzapena.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Teknikak gauzatzean gerta daitezkeen gorabehereri arreta egitea. - Jarduerak egitean pertsonaren inplikazioaren garrantzia baloratzea.

3. OSASUN LAGUNTZAKO JARDUEREN EZAUGARRIAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Azterketa medikoan gehien erabiltzen diren posizio anatomikoen indikazioak eta propietateak identifikatzea, betiere erabiltzailearen egoeraren eta baldintzen arabera. - Bizi-konstanteak neurtzeko eta erregistratzeko teknikak eta prozedurak aplikatzea. - Giza gorputzean hotzeko eta beroko tratamendu-teknikak aplikatzea, eta horien indikazioak azaltzea. - Sendagaiak emateko biderik ohikoenen ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea. - Aerosolterapiako eta oxigenoterapiako teknikak aplikatzea, eta horiek zuzen gauzatzeko beharrezko materialak azaltzea. - Sendagaiak ahotik, ondestetik edo bide topikotik ematea. - Suposizioko datuekin betetzea norik bere eskumeneko erregistroak medikazio-orrian. - Arnas-aparatuko gaixotasunetan jarioak mobilizatzeko teknikak aplikatzea. - Masajeak ematea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Miaketa medikoa: prestaketa eta bizi-konstanteak. - Farmakologia orokorraren printzipioak. - Sendagaiak emateko bideak. Anatomia eta fisiologia.

	<ul style="list-style-type: none"> - Sendagaien prestaketa. Teknikak. - Hotzeko eta beroko tratamenduak. Teknikak. - Tratamendu hidrotermalak. Teknikak. - Errehabilitazio-tratamenduak. Berariazko teknikak. - Bizi-konstanteak neurtzeko prozedurak. Teknikak. - Aerosolterapia eta oxigenoterapia. - Beharrezko aparatuak, tresnak eta materialak. - Aerosolak eta oxigenoa aplikatzearen xedeak. - Emateko metodoak eta teknikak. - Prekauzioak eta kontraindikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea eta horien garrantzia baloratzea. - Osasun-jardueretan pertsonaren eta haren ingurunearen inplikazioaren garrantzia baloratzea.

4. ELIKAGAIK EMATEKO LANAK ANTOLATZEA ETA AHORATZEN LAGUNTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elikagaiak ahotik eta bide enteraletik emateko teknikak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera. - Elikagaiak ahotik edo bide enteraletik emateko beharrezko materialak hautatzea. - Elikagaia emateko bidearen arabera egokiena den jarrera anatomikoa identifikatzea. - Elikatzeko teknikak egitean kontuan izan beharreko neurri higieniko-sanitarioak aplikatzea. - Ahoratzen laguntzeko teknikak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera. - Elikagaiak zunda nasogastrikoaren bidez ematea. - Elikagaiak ahoratzeari eta iraizkinak biltzeari eta ezabatzeari buruzko aholkuak ematea erabiltzaileari eta haren zaintzaile nagusiei.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Digestio-sistemaren eta sistema endokrinoaren printzipio anatomofisiologikoak. - Digestio-aparatuak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko anatomia eta fisiologia. • Digestio-aparatuarekin lotzen diren organo abdominalak (pankrea, gibela eta behazun-maskuria). • Dagozkion patologiak. • Gehien erabiltzen diren proba funtzionalak eta diagnostiko-probak. - Sistema endokrinoa: <ul style="list-style-type: none"> • Guruin endokrino nagusien oinarrizko anatomia eta fisiologia. • Dagozkion patologiak. - Ahotik, bide enteraletik eta bide parenteraletik elikatzea. - Iraizkinak biltzeko eta ezabatzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen intimitatea errespetatzea. - Segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea eta horien garrantzia baloratzea.

5. OSASUN ARRETAKO JARDUERAK KONTROLATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera fisikoari eta osasun-egoerari buruzko informazioa lortzeko teknikak eta tresnak aplikatzea. - Osasun-arretako jardueren jarraipena egiteko teknikak eta tresnak aplikatzea. - Erregistroak erabiltzea, eskuzkoak eta informatizatuak. - Diziplinar-teko taldeari informazioa transmititzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera fisikoa eta osasun-egoera: informazioa biltzeko teknikak eta tresnak. - Osasun-arreta: jarduera horien jarraipena egiteko tresnak eta teknikak. - Informazioaren erregistro motak: eskuzkoak eta informatizatuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Datuen erregistroan doitasunak eta objektibitateak duen garrantzia baloratzea. - Ezarritako arauak errespetatzea eta betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluari 1. multzoarekin emango diogu hasiera, “*Osasun-arretako jarduerak antolatzea*”. Garrantzia izango dute sistemen printzipio anatomofisiologikoen, gainerako edukiak ikasteko sarrerako eta oinarriko izaera argia dute-eta. Horrenbestez, komenigarria izan daiteke eduki horiek behar bezala bereganatzen direla ziurtatzeko behar besteko denbora erabiltzea.

Ondoren, 3. multzoko edukiak jorratuko ditugu, “*Osasun-laguntzako jardueren ezaugarriak*”. Tratamenduak emateko metodoak eta teknikak ezagutuko dira, baita prekaizioak eta kontraindikazioak ere.

Gero, 2. eduki multzoari ekingo zaio, “*Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak aplikatzea*”. Multzo horretako edukiak ikasteko, lekualdatzeko, mobilizatzeke eta joan-etorriak egiteko teknika zuzenak egiaztatuko diren suposizio praktikoak planteatuko dira.

4. multzoko edukiei ekingo diegu gero “*Elikagaiak emateko lanak antolatzea eta ahoratzen laguntzea*”. Hainbat mendekotasun-maila duten pazienteei elikagaiak ahoratzen laguntzeko suposizio praktikoak egingo dira.

Azkenik, 5. eduki multzoa landuko dugu “*Osasun-arretako jarduerak kontrolatzea eta jarraipena egitea*”.

2) Alderdi metodologikoak

Edukiak garatzeko garaian erabili beharreko metodologia askotarikoa eta oso desberdina izan daiteke, baina komeni da honako iradokizun hauetako batzuk aintzat hartzea.

“**Osasun-arreta**” modulu hau modulu batez ere praktikoa da, baina kontzeptuzko eta jarrerazko karga handia du. Horrenbestez, tituluaren kompetentzia profesionalak eta helburuak lortzeko gida izango diren prozedurak gauzatu ahala, txertatuko dira kontzeptuzko eta jarrerazko edukiak.

Komeni da ondo definitutako suposizio praktikoetan lantzea mobilizazio, lekualdaketa eta joan-etorrietako teknikak, eta elikagaiak ahoratzen laguntzeko teknikak.

Jarrerazko edukiak sistematikoki hartu beharko dira kontuan. Modulu honetan, garrantzi handikoak dira pertsonen tratuarekin eta laneko erantzukizunarekin lotzen diren edukiak.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Osasun-arretako jarduerak antolatzea:
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen osasun-arretako beharrak identifikatzea.
- ✓ Mobilizatu, lekualdatu eta joan-etorriak egiteko teknikak aplikatzea:
 - Erabiltzaileen joan-etorrietarako eta lekualdaketetarako laguntza teknikoak erabiltzea eta egokitzea, betiere erabiltzailearen osasun-egoeraren arabera.
 - Oheratuta dagoen pertsona bat mobilizatzeko eta kokatzeko maniobrak ezaugarritzea.
- ✓ Osasun-laguntzako jarduerak ezaugarritzea:
 - Bizi-konstanteak neurtzeko eta erregistratzeko teknikak eta prozedurak aplikatzea.
 - Sendagaiak emateko biderik ohikoenen ezaugarri anatomofisiologikoak deskribatzea.
 - Sendagaiak ahotik, ondestetik edo bide topikotik ematea.
- ✓ Elikagaiak emateko lanak antolatzea eta ahoratzen laguntzea:
 - Elikagaiak ahotik eta bide enteraletik emateko teknikak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera.
 - Elikatzeko teknikak egitean kontuan izan beharreko neurri higieniko-sanitarioak aplikatzea.
 - Ahoratzen laguntzeko teknikak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera.
 - Osasun-arretako jarduerak kontrolatzea eta jarraipena egitea.

8

8. lanbide-modulua

ARRETA HIGIENIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Arreta higienikoa
Kodea:	0217
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Osasun- eta laguntza-prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1017_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC1018_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0249_2: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsonen zuzenduta.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 8.a / 9.a / 10.a / 17.a / 18.a / 19.a / 23.a / 24.a / 25.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako eta haren ingurunerako arreta higienikoko jarduerak antolatzen ditu, eta pertsona horien ezaugarriekin eta beharrekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren zaintza-plan indibidualizatua interpretatu du.
- b) Pertsona batek behar dituen arreta higienikoak identifikatu ditu, haren osasuna eta mendekotasun-maila kontuan izanik.
- c) Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren zirkunstantziak eta eguneroko bizimoduan eragingo dizkion zailtasunak lotu ditu.
- d) Pertsonaren higie-ne egoera eta autonomia errazten edo eragozten duten ingurunearen ezaugarriak identifikatu ditu.

- e) Ingurumen-baldintzak pertsonaren berariazko beharrei arreta egiteko egokiak direla egiaztatu du.
- f) Pertsonak jarduera higieniko-sanitarioetan eta ahalmen fisikoak mantentzeko jardueretan parte hartzeko eta autonomia izateko dituen aukerak ezagutu beharra argudiatu du.
- g) Zaintza-plan indibidualizatuan edo bizimodu independenteko planean adierazten diren beharrezko baliabideak hautatu ditu.
- h) Norberaren higiene-beharrak asetzeko autonomia erraztuko duten laguntza tekniko egokiak proposatu ditu.

2. Norberaren higiene eta garbitasuneko teknikak aplikatzen ditu, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren eta ingurunearen beharrak eta baldintzak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Presioaren ondoriozko ultzeren neurri prebentibo nagusiak azaldu ditu, baita prebentzioarako eta tratamendurako osasun-produktuak ere.
- b) Norberaren higiene eta garbiketa osoko edo partzialeko prozedurak aplikatu ditu, pertsonaren egoeraren eta beharren arabera.
- c) Janzteko eta oinetakoak jartzeko teknikak egin ditu, pertsonaren beharrak eta autonomia-maila kontuan izanik.
- d) Pertsonaren autonomia sustatzeko beharrekiko sentsibilitatea erakutsi du.
- e) Laginak biltzeko eta hondakinak ezabatzekeo teknikak deskribatu ditu, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ezaugarriak kontuan izanik.
- f) Oinarrizko post mórtem prozedurak aplikatu ditu, ezarritako protokoloari jarraituta.
- g) Higiene-jarduerak egitean, prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu, baita norbera babesteko neurriak ere.
- h) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaintzaile ez-profesionalen higiene-ohitura osasuntsuei buruzko informazioa ematea, baita beharrezko produktuei eta materialei eta horien erabilera zuzenari buruzkoa ere.

3. Ingurunearen higiene teknikak aplikatzen ditu, eta prozedurak eta materialak eraginkortasun, prebentzio eta segurtasuneko irizpideekin hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen logelako baldintza higieniko-sanitarioak eta txukuntasun-baldintzak deskribatu ditu.
- b) Erabiltzailearen ohea egin eta garbitzeko teknikak aplikatu ditu, pertsonaren egoerara eta baldintzetara egokituta, pertsonaren erosotasuna errazteko.
- c) Gaixotasun kutsakorren aurrean beharrezko prebentzio-neurriak deskribatu ditu.
- d) Pertsonaren egoeraren arabera isolamendu teknikoaren printzipioak deskribatu ditu.
- e) Erabili ohi diren materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak eta teknikak aplikatu ditu, prozesu horien kalitate-kontrolak errespetatuta eta hondakinen tratamenduari buruzko araudia kontuan hartuta.
- f) Prebentzio- eta segurtasun-neurriak hartu ditu, baita norbera babesteko neurriak ere, higiene-jarduerak egitean.
- g) Inguruneak bete beharreko baldintza higienikoen berri eman die erabiltzaileari, familiakoei edo zaintzaile informalei.
- h) Ingurunearen higienarako beharrezko produktuen eta materialen erabileraren berri eman die erabiltzaileari, familiakoei edo zaintzaile informalei.

4. Arreta higienikoko jardueren kontrola eta jarraipena egiten du, ezarritako behaketa- eta erregistro-protokoloak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzaileen beraien eta haien ingurunearen higiene-egoera behatzeko, kontrolatzeko eta jarraipena egiteko protokoloek bete beharreko ezaugarriak identifikatu ditu.
- b) Erabiltzailearen eta haren ingurunearen arloko jardueri buruzko informazioa eta azaldu ziren gorabeheri buruzko informazioa bildu du.
- c) Eskuzko eta informatika bidezko behaketa-protokoloak bete ditu, kasu bakoitzerako ezarritako jarraibideen arabera.
- d) Bere kargura dauden pertsonen informazioa lortu du, hainbat bitartekoren bitartez.
- e) Pertsonaren bilakaeraren jarraipena egiteko aurreikusitako behaketa-tresnak eta -teknikak aplikatu ditu, lortutako datuak ezarritako prozeduraren arabera erregistratuta.
- f) Ezarritako prozeduren bitartez, eta une egokian, transmititu du informazioa.
- g) Erabiltzailearen arreta higienikoaren kontrolaren eta jarraipenaren garrantzia argudiatu du.

c) Edukiak

1. ARRETA HIGIENIKOKO JARDUERAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Higiene pertsonaleko teknikak aplikatzea. - Ingurumen-higieneko teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak garbiketa- eta higiene-jardueretan autonomia izatearen garrantzia. - Norberaren higiena. Motak. - Ingurumen-higiena. - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egiteko teknikaria.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzaileari egiten zaion arretaren kalitatearekiko interesa izatea. - Adeitasunez tratatzea erabiltzailea.

2. MENDEKOTASUN EGOERAN DAGOEN PERTSONAREN HIGIENE ETA GARBIKETA JARDUERAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Presioaren ondorioz ultiak sortzearen mekanismoak identifikatzea, baita gehien agertzen diren inguru anatomikoak ere. - Presioaren ondorioz ultiak agertzea saihesteko neurri prebentibo nagusiak ezaugarritzea, eta horien tratamendurako eta prebentziorako osasun-produktuak identifikatzea. - Iraizkinak biltzeko prozedurak aplikatzea. - Gaixo inkontinente eta/edo kolestomizatuentzako arreta bereziak ezaugarritzea. - Hilotzak janzteko prozedurak aplikatzea, hori behar bezala egiteko materialak erabilia. - Garbiketa eta higieneko laguntza teknikoak aplikatzea. - Norberaren garbiketa eta higieneko laguntzak aplikatzea.

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larruazalaren printzipio anatomofisiologikoak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko anatomia eta fisiologia. • Larruazalaren patologiarik ohikoenak. • Larruazalaren eta mukosen oinarrizko lesioak. - Ugaltze-aparatu femeninoa eta maskulinoa: oinarrizko anatomia, fisiologia eta patologia. - Gorputz-garbiketa eta -higieneko teknikak. - Oheratutako pazientearekin aplikatzeko teknikak: materialak eta teknikak. - Ile-higieneko teknikak: materialak eta teknikak. - Aho-higieneko teknikak: materialak eta teknikak. - Paziente inkontinentearentzako eta kolostomizatuarentzako zaintzak. - Presioaren ondoriozko ultzerak: <ul style="list-style-type: none"> • Definizioa, sailkapena eta kokapena. - Eragin duten faktoreak. Arriskuak. Norton-en eskala: <ul style="list-style-type: none"> • Prebentzioa eta tratamendua. - Hondakinak biltzeko teknikak: ziri-ontziaren eta botilaren erabilera. - Hil ondoko zaintzak: hilotza prestatzearen helburua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren arreta integrarean higiene-beharra baloratzea. - Adeitasunez tratatzea erabiltzailea. - Erabiltzaileari egiten zaion arretaren kalitatearekiko interesa izatea. - Garbiketa- eta higiene-jardueretan, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren autonomia-aukerak erraztearen garrantziaz jabetzea.

3. INGURUNEAREN HIGIENE JARDUERAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretan gehien erabiltzen diren oheak eta osagarriak ezaugarritzea, etxeetan zein instituzioetan. - Oheko arropa tolesteko eta ondoren erabiltzera begira prestatzeko teknikak gauzatzea. - Oheak garbitzeko prozedurak egitea eta egoera berezietan osagarriak ordezkatzeko irizpideak betetzea. - Desinfekzio-prozesua gauzatzea, eta erabil daitezkeen materialen ezaugarrien arabera erabili beharreko metodoak hautematea. - Esterilizazio-prozesua egitea, eta erabili beharreko teknikak eta prozesu horien kalitate-kontrolako metodoak hautematea. - Laginak jatorri biologikoaren arabera biltzeko teknikak aplikatzea. - Oinarrizko esku-garbiketako teknikak aplikatzea, baita burukoa, eskularruak, mantala, kaltzak, eta abar ere.
----------------	--

- kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ohea: osagarriak eta ohe motak. Oheko arropa. - Ohe motak egiteko teknikak. Okupatua. Okupatu gabea. - Institutuzio batean dagoen pertsonaren gela. - Materialen eta tresnen garbiketari aplikatu dakizkiokeen oinarriko printzipioak. Aparatuen eta tresnen garbiketa. - Botatzeko materiala eta botatzekoa ez dena. - Garbitzeko prozedurak. Materialak, tresnak eta aparatuen. - Garbiketa-prozesua eta material garbiaren egokitzapena egiaztatzekeko irizpideak. - Sendaketa-orga: antolamendua, garbiketa eta birjarpena. - Materialaren desinfekzioaren oinarriko printzipioak: <ul style="list-style-type: none"> • Desinfekzioa, desinfektatzailea, asepsia, antiseptikoa eta antiseptikoa. • Desinfekzioaren dinamika. • Desinfektatzaileen ekintzaren mekanismoak. • Osasun-erabilerako materiala desinfektatzeko metodoak: fisikoak eta kimikoak. - Esterilizazio-metodoak: <ul style="list-style-type: none"> • Fisikoak: bero lehorra, bero hezea, erradiazio ionizatzaileak eta aire-iragazkiak. • Kimikoak: etileno-oxidoa, formaldehidoa eta glutaralehido aktibatua. • Esterilizazioa kontrolatzeko metodoak: kanpo-kontrolerako zinta kimikoak, barne-kontrolerako zerrenda kimikoak, kontrol biologikoa eta autogakoen erregistro grafikoak. - Jatorri biologikoaren arabera hartzea laginak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eraginkortasuna baloratzea esterilizazio-metodoen aplikazioan. - Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren inguruneke higie- eta osasun-baldintzak baloratzea.

4. ARRETA HIGIENIKOKO JARDUERAK KONTROLATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien ingurunearen arloan, informazioa lortzeko teknikak eta tresnak aplikatzea. - Arreta higienikoko jardueren jarraipena egiteko teknikak eta tresnak aplikatzea. - Eskuzko erregistroak eta informatikoak erabiltzea. - Diziplinarteko taldeari bildutako informazioa transmititzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien ingurunearen arloan, informazioa biltzeko teknikak eta tresnak. - Arreta higienikoko jardueren jarraipena egiteko teknikak eta tresnak. - Erregistroak: eskuzkoak eta informatikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Datuen erregistroan doitasunak eta objektibitateak duen garrantzia baloratzea. - Adeitasunez tratatzea erabiltzailea. - Ezarritako arauak errespetatzea eta betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Komeni da 2. multzoko edukiekin hasia “*Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren higie- eta garbiketa-jarduerak aplikatzea*”. Larruazalaren printzipio anatomofisiologikoak azalduko dira, eta presioaren ondoriozko ultzerari emango zaie garrantzia. Hil osteko zaintzei ere garrantzi handia emango zaie.

Gero, 3. multzoko edukiekin jarraituko dugu, “*Ingurunearen higie-jarduerak aplikatzea*”. Bertan, ohe, arropa eta osagarri motak ezagutuko dira, eta desinfekzio eta esterilizazio printzipioak aztertuko dira.

Ondoren, 1. multzoari ekingo diogu, “*Arreta higienikoko jarduerak antolatzea*”. Suposizio praktikoetan, norberaren eta ingurumenaren higieneko teknikak aplikatuko dira.

Azkenik, 4. multzoa landuko da, “*Arreta higienikoko jarduerak kontrolatzea eta jarraipena egitea*”.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau batik bat praktikoa da. Bertan, irakaslearen eginkizun nagusia da egin beharreko jardura praktikoa behar bezala hautatzea, errazenetik zailenera sekuentziazatuta. Jardura horien artean daude mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren higie eta garbiketa eta haren ingurunearen higie.

Unitate didaktiko bakoitzari hasiera ematean, komeni da denbora-tarte jakin bat eskaintzea kontzeptuzko edukiak aurkezteari, ikasleek unitatea ezagut dezaten. Horrela, unitatearen inguruan duten ezagutzari eta interesari buruzko informazioa bilduko da.

Batzuetan, simulazioen gainean egin daiteke lan, eta oso garrantzitsua izango da suposizio horiek ondo zehaztea eta ahalik eta aniztasun eta egiazkotasun handieneko egoerak ekartzea. Oso garrantzitsua da suposizio horiek argiak izatea eta ikasleak zer eskatzen zaion jakitea.

Jarrerazko edukiak sistematikoki hartu beharko dira kontuan. Modulu honetan, garrantzi handikoak dira pertsonen tratuarekin eta laneko erantzukizunarekin lotzen diren edukiak.

Praktika bakoitza amaitu ostean, komenigarria izango da egindako jardueren kontrola eta jarraipena egitea, eta, horretarako, informatika teknikak erabiltzea, ahal izanez gero.

3) Jardura esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Arreta higienikoko jarduerak antolatzea:

✓ Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren higie- eta garbiketa-jarduerak aplikatzea:

- Presioaren ondorioz ultzerak agertzea saihesteko neurri prebentibo nagusiak ezaugarritzea, eta horien tratamendurako eta prebentziorako osasun-produktuak identifikatzea.
- Hilotzak janzteko prozedurak aplikatzea, hori behar bezala egiteko materialak erabilia.
- Garbiketa eta higieneko laguntza teknikoak aplikatzea.

- ✓ Ingurunearen higiene-jarduerak aplikatzea:
 - Oheak garbitzeko prozedurak egitea eta egoera berezietan osagarriak ordezkatzeko irizpideak betetzea.
 - Desinfekzio-prozesua gauzatzea.
 - Esterilizazio-prozesua gauzatzea.
 - Arreta higienikoko jarduerak kontrolatzea eta jarraipena egitea.

9. lanbide-modulua TELELAGUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Telelaguntza
Kodea:	0831
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1423_2: Telelaguntzako zerbitzuaren sarrera-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzea. UC1424_2: Telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea. UC1425_2: Telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 10.a / 17.a / 18.a / 19.a / 20.a / 22.a / 23.a / 24.a / 27.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Telelaguntzako zerbitzuan norberaren jarduna antolatzen du, lanpostuaren ezaugarriak eta ekipamendu teknikoa kontuan izanik.

Ebaluazio-irizpideak:

- Telelaguntzako zerbitzuaren ezaugarriak, funtzioak eta egitura deskribatu ditu.
- Operadorearen espazio fisikoa antolatu du, garbitasuneko, txukuntasuneko eta arriskuen prebentzioko irizpideekin.
- Profesional bakoitzaren osasunaren gaineko arriskuak prebenitzen dituzten higiene, ergonomia eta komunikazioko arauak deskribatu ditu.
- Zerbitzuaren kalitatea hainbat txandatan optimizatzeko ezarritako protokoloei jarraitzeko beharra argudiatu du.
- Telelaguntzako zerbitzuko berezko informatika-aplikazioak eta tresna telematikoak erabili ditu.
- Telelaguntzako zerbitzuen terminalak eta gailu osagarriak egiaztatu ditu.
- Tresna telematikoaren erabileran ohikoenak diren gorabeherak deskribatu ditu.

- h) Informazioaren konfidentziasuna eta pertsonen intimitaterako eskubidea bermatzearen garrantzia justifikatu du.

2. Irteera-deiak kudeatzeko prozedurak aplikatzea, informatika-aplikazioak eta tresna telematikoak erabilia.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esleitutako pasahitzaren bitartez sartu da informatika-aplikazioan.
- b) Informatika-aplikazioan, lan-txandan egin beharreko agendak hautatu ditu.
- c) Deien zenbakiaren, motaren eta protokoloan ezarritako lehentasunaren arabera programatu ditu deiak.
- d) Informatika-aplikazioan, behar bezala hautatu du agendako deia.
- e) Aurkezpen-protokolo pertsonalizatua aplikatu du.
- f) Agendaren helburura eta erabiltzailearen ezaugarrietara egokitu du elkarrizketa.
- g) Agurrerako ezarritako protokoloei jarraitu die.
- h) Irteera-deia jasotzen duen pertsonarentzat egokia den lengoia erabiltzea baloratu du.

3. Sarrera-deiak kudeatzeko prozedurak aplikatzen ditu, ezarritako jarraibideak eta protokoloa kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aurkezpenerako, garapenerako eta agurrerako ezarritako protokoloei jarraitu die.
- b) Pertsona zerbitzuan altan dagoen egiaztatu du.
- c) Erabiltzailearen ezaugarrietara egokitu du zerbitzuaren ezaugarriei eta prestazioei buruzko azalpena, baita terminalaren funtzionamenduari eta gailu osagarriei buruzko azalpena ere.
- d) Pertsonaren datuak informatika-aplikazioan eguneratu ditu.
- e) Komunikazioa eta tratu pertsonalizatua errazten duten estrategiak erabili ditu.
- f) Krisialdi- eta larrialdi-egoeren aurrean behar bezala erantzun du.
- g) Planteatutako eskariari erantzuteko baliabide egokiak jarri ditu abian.
- h) Erabiltzailearen iritziak eta erabakiak errespetatzearen garrantzia argudiatu du.

4. Sarrera- eta irteera-deien jarraipena egin du, egindako jardunak eta gorabeherak erregistratuta eta dagokion txostena landuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Informazioa txanda batetik bestera transmititzea errazten duten bitarteko teknikoak azaldu ditu.
- b) Informazioa erregistratzeko teknikak eta prozedurak aplikatu ditu.
- c) Telelaguntzako zerbitzuaren txosten motak deskribatu ditu.
- d) Jarraipen-txostenak landu ditu.
- e) Hobe daitezkeen norberaren lan-jarduneko alderdiak identifikatu ditu.
- f) Beste profesional batzuek zein egoeratan esku hartu behar duten identifikatu du.
- g) Profesional eskudunei gorabeherak eta hobekuntza-proposamenak helarazi dizkie.
- h) Lanbide-kompetentzia telelaguntzaren esparruko beste behar batzuetara egokitzearen garrantzia baloratu du.

c) Edukiak

1. LANPOSTUA ANTOLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telelaguntzako zerbitzua ezaugarritzea. - Teleoperadorearen espazio fisikoa prestatzea eta mantentzea. - Telelaguntzaren lan-arriskurik ohikoenak identifikatzea. - Talde-laneko teknikak aplikatzea. - Telelaguntzako <i>hardwarea</i> eta <i>softwarea</i> erabiltzea. - Tresna telematikoak erabiltzea. - Terminalak eta gailu osagarriak erabiltzea. - Sartzeko pasahitza egiaztatzea. - Datuak babesteko eta konfidentziasunerako teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telelaguntzako zerbitzua. - Teleoperadorearen espazio fisikoa. Txukuntasuna eta mantentzea. - Telelaguntzako zerbitzuaren berariazko lan-arriskuak. - Telelaguntzaren <i>hardwarea</i> eta <i>softwarea</i>. - Tresna telematikoak. - Terminala eta gailu osagarriak. - Datuen babesa eta konfidentziasuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabiltzailearen eskubideak. - Telelaguntzako zerbitzuaren arloko elkarlana.

2. IRTEERA DEIAK KUDEATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Agenda motak identifikatzea, horiek kudeatzeko modua azalduta. - Irteera-deiak planifikatzeko modua aztertzea, zenbakiaren, motaren eta protokolo-lehentasunaren arabera. - Komunikazio-jarraibideak aplikatzea, telelaguntzako zerbitzuaren erabiltzaile motaren arabera. - Irteera-deiak egiteko protokoloak aplikatzea, horiek hasteko, garatzeko eta amaitzeko modua identifikatuta. - Aktak egitea eta datuak aldatzea erabiltzailearen espedientean.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Agenda motak. Kudeatzeko eta programatzeko moduak. - Telelaguntzako zerbitzuko erabiltzaileen espedienteetako altak eta aldaketak. - Aurkezteko eta agurtzeko protokoloak. - Agendaren araberrako komunikazio-jarraibideak. - Irteera-deien plangintza, zenbakiaren, motaren eta lehentasunaren arabera.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa solaskidera egokitzearen garrantzia baloratzea. - Informazioa argiro, ordenaz, egituratuta eta doitasunez ematea.

3. SARRERA DEIAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telefono bidezko arreta-teknikak aplikatzea. - Aurkezteko eta agurtzeko protokoloak aplikatzea. - Erabiltzailearekin telefono bidez eraginkortasunez komunikatzeko teknikak aplikatzea. - Krisialdi- eta/edo larrialdi-egoerak identifikatzea. - Telelaguntzako zerbitzuetan estresa kontrolatzeko teknikak aplikatzea. - Deiak kudeatzea eta baliabideak mobilizatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Telefono bidezko komunikazio-teknikak. - Aurkezteko eta agurtzeko protokoloak. - Alarmak: motak eta jarduna. - Krisi-egoerak. Jarduteko moduak. - Estresaren kontrola telelaguntzako zerbitzuetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Une oro pertsona egokiekiko komunikazio eraginkorra izatea, antolakundeak ezarritako bideak errespetatuz. - Erabiltzailearen eskubideak errespetatzea.

4. SARRERA ETA IRTEERA DEIEN JARRAIPENA EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Espedienteak kudeatzea. - Informazioa erregistratzeko teknikak eta prozedurak aplikatzea. - Txostenak lantzea. - Txostenak landu daitezkeen kasuak identifikatzea. - Gorabeherak erregistratzea eta transmititzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erregistratu beharreko informazioa. Motak. - Informazioa erregistratzeko eta kodetzeko teknikak. - Jarrailpen-agendak: programatzen eta erregistratzen diren kasuak. - Programazio-teknikak. - Telelaguntzako zerbitzuaren kalitate-adierazleak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Behar berriak egokitzea. - Informazioaren transmisioa baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Itxuraz, komeni da moduluari 1. multzoarekin hasiera ematea “*Lanpostua antolatzea*”. Terminalen eta gailuen erabilera zuzenari arreta berezia emango zaio.

Ondoren, 3. multzoa landuko dugu, “*Sarrera-deiak kudeatzea*”. Garrantzi handia emango zaio telefono bidezko arretari, eta aurkezteko eta agurtzeko protokolo zuzena erabiltzeari eta komunikazio eraginkorra egiteari.

Gero, 2. multzoari ekingo zaio, “*Irteera-deiak kudeatzea*”. Agenda motak identifikatuko dira, deiei lehentasuna emango zaie, eta komunikazio zuzena eta eraginkorra erabiliko da.

Azkenik, 4. multzoa jorratuko da, “*Sarrera- eta irteera-deien jarraipena egitea*”.

2) Alderdi metodologikoak

Irakasleak egingo dituen azalpen-jarduerak ikasleengan islatu beharko dira gero, bai banako jardueren garapenean, bai taldeko jardueren garapenean.

Jarduerak gero eta konplexuagoak izango dira, ikasleen ulermen-mailara egoki daitezen. Bana-banako jarraipena egin beharko da.

Modu honetan oso garrantzi handikoa da informatika-tresneria erabiltzea, ikasleak lan-tresna gisa erabiltzen ohitu daitezen.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Lanpostua antolatzea:

- Telelaguntzako zerbitzua ezaugarritzea.
- Telelaguntzako *hardwarea* eta *softwarea* erabiltzea.
- Tresna telematikoak erabiltzea.
- Terminalak eta gailu osagarriak erabiltzea.
- Datuak babesteko eta konfidentziasunerako teknikak aplikatzea.

✓ Irteera-deiak kudeatzea:

- Komunikazio-jarraibideak aplikatzea, telelaguntzako zerbitzuaren erabiltzaile motaren arabera.
- Irteera-deiak egiteko protokoloak aplikatzea, horiek hasteko, garatzeko eta amaitzeko modua identifikatuta.

✓ Sarrera-deiak kudeatzea:

- Telefono bidezko arreta-teknikak aplikatzea.
- Aurkezteko eta agurtzeko protokoloak aplikatzea.
- Krisialdi- eta/edo larrialdi-egoerak identifikatzea.
- Sarrera- eta irteera-deien jarraipena egitea.

10. lanbide-modulua

LEHEN LAGUNTZAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lehen laguntzak
Kodea:	0020
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	66 ordu
Kurtsua:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Osasun- eta laguntza-prozedurak Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista.
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua
Helburu orokorrak:	11.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzeari norbera babesteko erabili beharrezko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeke prozedurak deskribatu ditu.
- Airezatzeko/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatzeke prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.
- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu du.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duenaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz halabeharrezko baliabideekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolakoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duenari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo oldarkortasuneko egoera kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

c) Edukiak

1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea. - Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea. - Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea. - Adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdietarako sistemak. - Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak). - Istripuak. Motak eta ondorioak. - Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak. - Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak. - Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triaie sinpleko metodoak. - Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak. - Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea. - Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. - Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak. - Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloari zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa izatea. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

2. BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. - Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea. - Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. - Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea. - Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. - Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea. - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentze-lanak. - Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin. - Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Egiaztapena. - Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak. - Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak). - Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan. - Hasierako arreta premiazko patologia organikoan. - Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. - Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

3. IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea. - Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea. - Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Indikazioak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak. - Lekualdatzeko beharra ebaluatzea. - Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Indikazioak. - Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko araei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea. - Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea. - Autokontrolako eta hutsegitea edo adre falta gainditzeko teknikak aplikatzea. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. - Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak. - Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena. - Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu hau garatzeko, edukien hurrenkera hau gomendatzen dugu:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BASa (babesa, abisua eta sorospena).
- Lehen esku-hartzailea, haren jardunaren mugak, esparru etikoa, harremanak beste profesional batzuekin...
- Segurtasuna eta norberaren babesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zeinuak eta sintomak, miaketa egiteko protokoloak, bizi-konstanteak hartzea...
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBBa, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatu eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoen, zaurien eta odoljarioen aurrean.
- Lehen laguntzak egitea beste egoera batzuetan, hala nola beste eragile fisiko, kimiko edo biologiko batzuek eta patologia organikoek eragindakoetan.
- Komunikazio-teknikak, eta laguntza psikologikoa eta autokontrolakoa emateko teknikak aplikatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleak gai izatea larrialdi-egoeretan ikasitako teknikak aplikatzeko. Hortaz, garapen praktikoa ezinbestekoa da. Ikasgelako egoera ohikoena izango da behar bezala ezaugarritutako egoeretan lehen laguntzetako teknikak praktikan aplikatzea.

Egoera horiek ezaugarritzeko, lanbide-sektorea erreferentzia gisa har daiteke eta sarrien izaten diren egoerak azaldu daitezke. Hainbat aldaketa sar daitezke, adibidez, inplikaturako pertsonen kopuruarekin, pertsonen adinarekin edo ezaugarriekin, istripuaren lekuarekin, etab. lotutakoak. Garrantzitsua izango da planteaturako egoerari eta aplikaturako teknikari buruzko azterketa eta gogoeta egitea, ikaskuntza horiek orokortu ahal izateko.

Eduki teorikoek bigarren mailako eginkizuna dutenez gero, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren heinean sartuko dira. Dena dela, nahiz eta bigarren mailako zeregina izan, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, praktikan jarri ez diren beste egoera batzuetan teknikak aplikatu ahal izateko eta informazioa eman edota larrialdietako koordinazio-zentro baten jarraibideak bete ahal izateko.

Eduki teorikoak lehen laguntzak emateko egoera bati lotuta ikasiko dira, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran oro har. Aurkezpen-sistemak konbina daitezke, hala nola, azalpen-metodoak eta parte-hartze handiagoko metodoak, ariketak ebatzea, eskemak prestatzea, betiere ikasleen artean parte-hartzea eta interesa lortzeko helburuarekin.

Ikasmateriala askotarikoa izan daiteke: dagoeneko landutakoa ekar daiteke (adibidez, apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat) edota, beste batzuetan, ikasleek landu dezakete, bibliografia edo informatika-aplikazioak kontsultatuta. Ikasleek laneko protokoloak eta argibideak erabiltzen, eta horiei ordenaz eta zehaztasunez jarraitzen ohitu behar dute. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon behar da (adibidez, ILCOR batzordearenak), sarritan berritzen baitira.

Jarduera praktikoetarako, bitarteko hauek eduki behar dira: lehen laguntzetako manikiak (pertsona helduenak, haurrenak eta bularreko umeenak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipamendua, sendaketak egiteko materiala, mobilizatzeko materiala... Ikastetxeko hainbat eremu erabil daitezke, hala nola, ikasgelak, jolastokiak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen jardunak irudietan bilduta azter daitezke, edota beste kide batzuenak ere; osasun-laguntza behatzeko eta hobekuntzak proposatu nahiz gauza interesgarrienak nabarmentzeko.

Ezinezkoa da praktikan lehen laguntzak ematea egoera guztietan, hala nola, agente fisiko, kimiko edo biologiko guztiek eta patologia organiko guztiek sorrarazitakoetan. Maiztasunagatik edo larritasunagatik garrantzitsuenak direnak hauta daitezke. Helburua da egoera horietan ikasleei jarduteko gaitasun oinarrizkoenak harraraztea, besteak beste, honakoa hauek: sintoma batzuk antzematea, laguntza ematen hastea, larrialdietako zentro koordinatzailearekin telefonoz harremanetan jartzea, informazioa ematea eta jarraibideak betetzea.

Laguntza psikologikoarekin eta komunikazio-teknikekin zerikusia duten edukiak sarritan jasotzen dira ikasketa-planetan. Eduki horiek jorrazteko, ikasleen alde aurreko ezagupenetatik abiatu beharko da; eta, dagoeneko ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handiena duen zatia ikusiko da. Talde-teknikak egin daitezke (role-playing, kasuen azterketa...), ikasleen jokabidea behatu eta haien gaitasunak agerian jarri ahal izateko.

Modulu honetan lortutako gaitasunetako batzuk egoera zailtan aplikatu beharko dira (presa, urduritasuna,...). Horregatik, garrantzitsua da eduki oinarrizkoenak edo garrantzitsuenak ondo finkatzea (jardun-sekuentzia, BBBa, norberaren babesa,...). Modulua amaitzen errebasoaldi bat antola daiteke. Bertan, denetako jardunak prestatuko dira, unitate didaktiko guztien edukiak elkarrekin lotuta, eta ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatu ahal izango da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Egoera desberdinetan BAS jardun-protokoloa aplikatzea. Eremua eta istripua izan duena babestea. Abisua eta informazioa ematea. Sorospen-neurriek ekitea.
- ✓ Istripuen hainbat kasutan, arrisku pertsonalak identifikatzea eta prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikin baten oinarrizko osagaiak erabiltzea. Produktuen zerrendak eta horiek erabiltzeko arauak jasoko dituzten dokumentuak prestatzea. Sendaketak egitea.
- ✓ Hainbat egoeratan laguntzaren hasierako balorazioa egitea. Zeinuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBBa egitea. Aire-bideei arreta jartzea. KDA erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatu eta ematea.
- ✓ Laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.
- ✓ Talde-tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko egoerak edo dependentziak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon litezkeen arriskuak idatziz jasotzea.
- ✓ Larrialdi-egoerak aztertzea, zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.

11. lanbide-modulua INGELES TEKNIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E100
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	33 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarriko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsua edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriei eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berariazko informazioa atera du eskaintako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- Testuen deia nagusiak jaso ditu.
- Bere lanbide-ingurunearekin erlazonatutako testuen laburpenak egin ditu.
- Sektoreko web-orri bateko oinarriko informazioak identifikatu ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak ulertu eta identifikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

c) Edukiak

1. AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoa. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboa, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta



	elkartek.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat formatutan emandako mezuak ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulak profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldebereotasuna. - Sektoreko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoa. - Euskarri telematikoak: fax, e-mail, burofax, web-orriak. - Protokolo-formulak idazki profesionaletan. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKUTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokolokoak baloratzea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoen eta sintaktikoen ez lukete inongo zentzurik ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egoerak (aditz-denbora, hiztegia, etab.), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Moduluaren hasierako aurkezpenean, agian komeni da beraiekin batera gogoeta egitea eta etorkizuneko lan-bizitzan aurre egin beharreko egoerarik arruntenak zein izango diren ondorioztatzea, lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza menderatzearen beharraz ohartzea, eta beste ohitura eta kultura batzuetara zabaltzearen beharra ikustea. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Erdi-mailako zikloak diren arren, arreta berezia eskaini beharko zaio ahozko hizkuntzari, lanbide-egoerek hala eskatzen dute-eta.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehenetsuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailereangana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionaleri.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren audio- eta bideo-materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da: kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak, eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzaile eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehenetsunez ahozko hizkuntza erabiltzea lanbide-inguruneari dagozkion materialekin: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuaren krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.

- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.

12. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea.
Kodea:	0218
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	10.a / 21.a / 22.a / 24.a / 25.a / 29.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.

- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-ingurune lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.

- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentzia barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneako arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

c) Oinarrizko edukiak

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrekina eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeko prozesua. - Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea. - Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaratzea.

2. GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa. - Talde motak sektoreke industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazka ebazteke edo deuseztatzeke metodoak: bitartekotza, adiskidetzeka eta arbitrajeka.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.
--------------	---

3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren arteztarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldirak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzekoak, soldata-bermeak. - Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzearen beharra baloratzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetarako dagokienez. - Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko araua aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdien aurreikuspena baloratzea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO modulua hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- European lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Segurtasun-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkariak.
- Negoziario kolektiboak.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.

- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzeagatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorrazteko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatuetakako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea... Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektorean enplegatze aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

13. lanbide-modulua

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	0219
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	63 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea. (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	28.a / 29.a

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako irizpideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-irizpideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeke oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.

- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarrizko edukiak

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburuaren kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.
2. ENPRESA ETA HAREN INGURUNEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea. - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berriazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea. - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BAT SORTU ETA ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga-arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea. - Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzeko beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta bana-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sektoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
 - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzun dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharrezko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.
 - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.

- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
 - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.

- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
 - Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

4 14 lanbide-modulua

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	0220
Heziketa-zikloa:	Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitea
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	380 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte esku-hartzea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista.
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura eta sektorean dauden eredu-zko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - o Lanpostuan beharrezkoa den pertsonal- eta denbora-eskuragarritasuna.

- o Jarrera pertsonalak (puntualtasuna, enpatia...) eta profesionalak (besteak beste, lanposturako beharrezko ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
 - o Jarrerazko eskakizunak, lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - o Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - o Lan-talde barruan eta enpresan ezarritako hierarkiekin harremanetan izateko jarrerak.
 - o Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - o Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzeko den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
- f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
- g) Egoera bakoitzean arduradunarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakiririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Lan-jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, ezarritako arauen eta jarraibideen arabera teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garatu beharreko lan-prozesuak prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- b) Ezarritako arauen eta jarraibideen arabera kontrol-prozedurak erabili ditu.
- c) Lan-jarduera garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
- d) Lan-jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
- e) Zerbitzuaren hartzaileen beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
- f) Mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabilita eta teknikak aplikatuta, ezarritako argibideen eta/edo arauen arabera.
- g) Lan-jarduera prestatzeko prozesuan sortu diren zailtasunak identifikatu ditu.
- h) Jarduera prestatzeko jarduera guztiak egin ditu, erabiltzaileen intimitate pertsonala errespetatzeko printzipioak kontuan hartuta.

4. Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak inplementatzen ditu, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzen ditu ezarritako arauak eta jarraibideak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- b) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
- c) Lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egin ditu lan-jarduera guztiak.
- d) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu du.

- e) Erabiltzaile, egoera edo zeregin motaren arabera jarrera egokiak erabili ditu.
- f) Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabili ditu.
- g) Baliabide teknikoen erabilera ezarritako prozedurei jarraitu die.
- h) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen beharrekina lotu ditu.

5. Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Legezko araudiarekin eta enpresaren beraren berariazko araudiarekin lotzen diren nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak ezagutu ditu.
- b) Higiene- eta osasun-arazoak edo segurtasun-arazoak eragin ditzaketen portaera edo jarrera guztiak ezagutu ditu.
- c) Jarduerarako arropa egokia erabili du.
- d) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko tresneria.
- e) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- f) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- g) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6. Egindako zerbitzua aztertzen du, esku hartzeko prozeduraren kalitate-irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratu du.
- b) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.
- d) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.
- e) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
- f) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira:

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura aztertzea.
 - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
 - Enpresaren jarduerak garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea.
- ✓ Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauen arabera jardutea:
 - Tresnak, materialak, produktuak, ekipamenduak eta garraiobideak manipulatzearen arriskuak identifikatzea.
 - Segurtasun-neurriak aplikatzea.
 - Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.
- ✓ Ingurumena babesteko arauen arabera jardutea:
 - Kutsadura-iturriak identifikatzea.
 - Ingurumena babesteko arauak aplikatzea.

- ✓ Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen jarduerak estaltzera zuzentzen diren jardunak garatzeko ezarritako programan esku hartzea:
 - Eguneko bizimodua garatzeko jardunak definitzea.
 - Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia-maila identifikatzea eta jardun-protokoloetara egokitzeko aukera emango duten oinarritzko arreta-beharrekin lotzea.
- ✓ Gizarte- eta osasun-jardueren garapenean parte hartzea:
 - Erabiltzaileei aurreikusitako jardueren garapenari buruz informatzea eta parte har dezaten erraztea.
 - Jarduerak egitean, erabiltzaileen ezaugarriak eta interesak identifikatzea.
 - Materialen egoeraren eta txukuntasunaren arloko gorabeheren berri ematea diziplinarteko taldeari.
- ✓ Erabiltzailearen higie pertsonalean esku hartzea:
 - Erabili beharreko bitarteko materialak identifikatzea eta hautatzea.
 - Garbiketa pertsonaleko teknikak egitea.
 - Ziri-ontzia eta/edo botila erabilia eginkariak eta gernua biltzea, baita paziente inkontinente eta kolostomizatuen kasuan ere.
- ✓ Erabiltzailearen inguruneke higie- eta osasun-baldintzak eta txukuntasuna mantentzeko teknikak aplikatzea.
 - Mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren ohiko inguruneak bete beharreko higie- eta osasun-baldintzak ezaugarritzea.
 - Erabiltzailearen ohea egitea eta/edo garbitzea, baita gehien erabiltzen diren osagarriak ere.
- ✓ Erabiltzaileari jakiak ahoratzen laguntzeko teknikak aplikatzea:
 - Aparatu endokrinoaren eta digestio-aparatuaren ezaugarri anatomofisiologikoak eta patologikoak identifikatzea.
 - Elikagaia emateko bidearen arabera egokiena den jarrera anatomikoa ondorioztatzea.
 - Ahoratzen laguntzeko teknikak aplikatzea, erabiltzailearen mendekotasun-mailaren arabera.
 - Norberaren eskumeneke erregistroak betetzea, dagokion formatuan eta euskarrian.
 - Dieten txantiloia betetzea, paziente bakoitzaren beharren arabera.
- ✓ Arreta higienikoan eta oinarritzko osasun-zaintzan erabili ohi diren tresnak eta materialak garbitzeko eta desinfektatzeko prozedurak aplikatzea.
 - Material mota bakoitzerako egokiak diren garbiketa-teknikak egitea.
 - Bildu beharreko lagin biologikoen jatorriaren araberako bitartekoak eta teknikak ezaugarritzea.
- ✓ Sendagaiak ahotik, bide topikotik eta ondestetik hartzeko aginduak betetzea.
 - Sendagaiak ahotik eta bide topikotik hartzeko materialak hautatzea.
 - Sendagaia prestatzea.
 - Sendagaiak ahotik, ondestetik edo bide topikotik ematea.
- ✓ Telelaguntzako zerbitzuaren informatika-aplikazioak erabiltzea:
 - Tresneria telematikoak protokoloen arabera maneiatzea.



- Entzute aktiboko eta transmisioko eta informazioko teknikak erabiltzea.
 - Goragoko mailako profesionalari edozein gorabeheraren edo anomaliaren berri ematea.
- ✓ Telelaguntzako zerbitzuetan krisialdi-egoerei aurre egiteko trebetasun psikosozialak aplikatzea:
- Krisialdi-egoeren aurrean jarduteko protokoloak ezaugarritzea.
 - Erantzun azkarra eta eraginkorra bermatzeko modua identifikatzea.

4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

4.1 Espazioak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (M ²) / 30 IKASLE	AZALERA (M ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Etxeko laguntzako lantegia	60	40
Osasun- eta higie-ne-arretako lantegia	120	80

4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko tresneria. - Sarean instalatutako PCak, proiektzio-kanoiak eta Internet. - Arbel finkoa. - Hondakinen eduki-ontzia. - Irakasle mahaia, besaulkia eta guzti. - Idazmahaiak - Esekigailuak. - 29"-ko telebista. - DVDA. - VHS bideoa. - Erretroproiektore eramangarria. - Diska- eta cassette-bilduma. - Soinu-katea. - Argazki-kamera digitala. - Sarraila duen armairua, informatika eta ikus-entzunezko tresneria gordetzeko. - Beira-armairua, kristalezko ateduna. - <i>Software</i> elkarreragilea. - Bideo-kamera. - Hormako proiektzio-pantaila.
Etxeko laguntzako lantegia	<ul style="list-style-type: none"> - Mikrouhinak. - Xurgagailua. - Vaporetta. - Sukaldeko tresneria eta lanabesak. - Frijigailua. - Kafegailua. - Terapia-baloiak. - Jausgailua (sorta). - Joko egokituen sorta. - Jolas-jardueretarako joko sorta. - Garbigailua - Ontzi-garbigailua. - Hozkailu handia. - Baxera eta mahai-tresnak. - Labea. - Kanpaia.

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
	<ul style="list-style-type: none"> - Sukaldeko altzariak. - Garbitzeko materiala eta produktuak. - Josteko makina. - Lehorgailua. - Bitrozeramikazko plaka. - Tresna egokituen sorta. - Lan-mahaia. - Arbel finkoa. - Eskola-aulki tapizatua. - Beira-armairua, kristalezko ateduna. - Hondakinen eduki-ontzia. - Esekigailuak. - Atea eta tiraderak dituen armairua. - Kortxozko taula.
Osasun- eta higiene-arretako lantegia	<ul style="list-style-type: none"> - Pazientearen unitatea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ohe elektronika. ▪ Orga jasotzailerako eskara aurkako koltxoia. ▪ Potentzia-trapezio desmuntagarria. ▪ Plano kulunkariko ohe-mahai osagarria. ▪ Relax-besaulki jasotzailea. ▪ Eskumuturrekoak. ▪ Oherako uhal abdominala. ▪ Oherako orkatilako babesa. ▪ Besaurretako euskarria duen ibil-tresna. ▪ Garabia. ▪ Bainu geriatrikoa.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri arreta egitea heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte esku-hartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0211. Gizarte-trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte esku-hartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0212. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ezaugarriak eta premiak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte esku-hartzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0213. Arreta eta laguntza psikosoziala	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearentzako zerbitzuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

0214. Komunikaziorako laguntza	• Irakasle espezialista	
	• Gizartearentzako zerbitzuak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0215. Etxeko laguntza	• Gizartearentzako zerbitzuak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	• Irakasle espezialista	
0216. Osasun-arreta	• Osasun- eta laguntza-prozedurak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0217. Arreta higienikoa	• Osasun- eta laguntza-prozedurak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0831. Telelaguntza	• Gizartearentzako zerbitzuak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
0020. Lehen laguntzak	• Osasun- eta laguntza-prozedurak • Diagnostiko kliniko eta ortoprosesikoko prozedurak	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	• Irakasle espezialista	
E100. Ingeles teknikoa	• Ingelesa	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0218. Laneko prestakuntza eta orientabidea.	• Laneko prestakuntza eta orientabidea.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0219. Enpresa eta ekimen sortzailea	• Laneko prestakuntza eta orientabidea.	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
0220. Lantokiko prestakuntza	• Gizarte esku-hartzea	• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea
	• Gizartearentzako zerbitzuak • Irakasle espezialista	• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

GIZARTE ETA OSASUN ARRETAKE HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EGITEKO HEZIKETA ZIKLOAREN LANBIDE MODULUAK (LOE 2/2006)
Esku-hartzeen plangintza eta kontrola	0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua
Osasun-arreta	0216. Osasun-arreta
Higienea	0217. Arreta higienikoa
Arreta eta laguntza psikosoziala	0213. Arreta eta laguntza psikosoziala
Etxeko laguntza	0215. Etxeko laguntza
Berariazko kolektiboen behar fisikoak eta	0212. Mendekotasun-egoeran dauden

psikosozialak	pertsonen ezaugarriak eta premiak
Komunikazio alternatiboa	0214. Komunikaziorako laguntza
Enpresa txikien administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea	0219. Enpresa eta ekimen sortzailea
Gizarte- eta osasun-arretako teknikariaren tituluaren lantokiko prestakuntza	0218. Lantokiko prestakuntza

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATALA	LANBIDE MODULUA
UC1016_2: Diziplinarteko taldeak adierazitako pertsoneri eta horien inguruneari arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan.	0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua
C1017_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC1018_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0249_2: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.	0217. Arreta higienikoa 0216. Osasun-arreta
UC1019_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0250_2: Etxez etxeko arreta psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.	0213. Arreta eta laguntza psikosoziala 0214. Komunikaziorako laguntza
UC0251_2: Bizikidetzaren unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.	0215. Etxeko laguntza
UC1423_2: Telelaguntzako zerbitzuaren sarrera-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzea. UC1424_2: Telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea. UC1425_2: Telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea.	0831. Telelaguntza

7.2. Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
0210. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arretaren antolamendua	UC1016_2: Diziplinarteko taldeak adierazitako pertsoneri eta horien inguruneari arreta egiteko jardunak prestatzea eta bultzatzea instituzio-esparruan.
0217. Arreta higienikoa	C1017_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta fisikoaren jardunak garatzea instituzio-esparruan.
0216. Osasun-arreta	UC1018_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako gizarte- eta osasun-arretaren jardunak garatzea instituzio-esparruan. UC0249_2: Etxez etxeko laguntza fisikorako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.
0213. Arreta eta laguntza psikosoziala	UC1019_2: Mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri zuzendutako arreta psikosozialaren jardunak garatzea instituzio-esparruan.
0214. Komunikaziorako laguntza	UC0250_2: Etxez etxeko arreta psikosozialerako esku-hartzeak garatzea, gizarte- eta osasun-arretaren premia duten pertsoneri zuzenduta.
0215. Etxeko laguntza	UC0251_2: Bizikidetzaren unitatearen kudeaketarekin eta funtzionamenduarekin lotutako jarduerak garatzea.
0831. Telelaguntza	UC1423_2: Telelaguntzako zerbitzuaren sarrera-deiei arreta egitea eta deiak kudeatzea. UC1424_2: Telelaguntzako zerbitzuaren irteera-deiak egitea eta kudeatzea. UC1425_2: Telelaguntzako zerbitzua egiteko tresnak, teknikak eta trebetasunak maneiatzea.



*Instituto Vasco del Conocimiento
de la Formación Profesional*
*Lanbide Heziketaren
Ezagutzaren Euskal Institutua*

Avda. Lehendakari
Aguirre, 184
48015 –Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.ivac-eei.eus
web@ivac-eei.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación
Profesional